

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

5035

EBAZPENA, 2021eko irailaren 22koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa den EEERI eskumena eman zaio energia aurrezte eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak eta energia-dibertsifikazioa bultzatzeko eta energia-azpiegiturak sustatzeko jarduketak gauza ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Ildo horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuak betetzeko. Jarduketa horien artean aipatzekoak dira zenbait laguntza-programa, izan ere, programa horien bidez energia-efizientzia eta energia-berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan.

2021eko ekainaren 30eko 155. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak ezarri zituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

477/2021 Errege Dekretuaren xedea da sei pizgarri-programa onartzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren eremuan, honako hauei buruzkoak:

- 1. Pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- 2. Pizgarri-programa – Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- 3. Pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- 4. Pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- 5. Pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- 6. Pizgarri-programa – Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.

2021eko urriaren 1a, ostirala

477/2021 Errege Dekretuko 6. artikuluko 2. atalean ezarritakoa betez, EEEko zuzendari nagusiak Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari formalki jakinarazi zion Euskal Autonomia Erkidegoari emandako dirulaguntza espresuki eta argi eta garbi onartzen zuela, Errege Dekretu horri erabat lotuta egonik 37.173.437 euro dena.

Pizgarri-programa diseinatu da sektore kontsumitzaile guztietan energia berriztagarri termiko zein elektrikoen zabalkundea sustatzeko helburu nagusiarekin, kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemak garatuz kontsumoa hobeto kontrolatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko industria eta lotutako enpresa-sektorea bultzatzeko.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EEEko organo errektoreen funtzioak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoa betez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programari dagozkion deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, horren edukia ebazpen honi lotu zaiolarik eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzeko ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2021eko irailaren 22a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan

Oinarriak

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarrien Programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren izaera

- 1.1. 2021eko ekainaren 30eko 155. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuak* (hemendik aurrera, **477/2021 ED**) energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

2021-2030 Energia eta Klima Plan Nazional Integratuak (PNIEC), inbertsio- eta erreforma-programa baten esparru zuzentzailea ematen du, ekonomia berdearen gaitasun estrategikoak garatuko dituen bidezko ingurumen-trantsizio bat bideratzeko helburuarekin. Ildo horretan, orain egiten ari den Autokontsumo Estrategia Nazionalak arreta berezi bat eskainiko die horrelako instalazioak garatzeko oztopo eta neurri nagusiei.

PNIEC planak aurreikusten du, autokontsumoaren eta sorkuntza banatuaren bitartez (1.4 neurria), eskaria kudeatuz, biltegitzeari eta malgutasunez (1.2 neurria), tokiko energia-komunitateak sustatuz (1.13 neurria) eta industria-sektorean energia berriztagarriak txertatuz (1.5 neurria), eta herritarrek deskarbonizazioan zeregin proaktiboa har dezatela sustatzeko (1.14 neurria) eta deskarbonizazio-prozesuaren gaineko jakintza eta sentsibilizazioa handitzeko (1.19 neurria) neurri espezifikoak abian jarri, aktoreen aniztasuna areagotzeko dela eta parte hartzeko proiektu gehiago sortuko direla, energia berriztagarrien sorkuntzari zein, oro har, energia-sistemari loturik.

Bestetik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren lehentasunak lerrokatuta daude, erabat, Batzordeak 2021eko Hazkunde Jasangarriko Urteko Estrategian aurkeztutako Europako zazpi ekimen nagusiekin (Flagship initiatives). Ekimen horien artean nabarmentzekoa da elektrifikazioari, energia berriztagarrien integrazioari, energia-biltegitzeari eta hidrogeno berriztagarriari eman nahi zaien bultzada.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bildutako hamar palanka-politikaren artean, honako bi ekintza-lerro hauek ageri dira:

- a. 7. osagaia: Energia berriztagarrien zabalkundea eta integrazioa; eta
- b. 8. osagaia: Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunak sustatzea, eta malgutasuna eta biltegitzeari zabaltzea.

PNIEC planaren neurriak garatzen eta neurri horien inplementazioa aurreratzen duten osagaien artean daude, besteak beste, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoa bultzatzea hainbat sektoretan eta hainbat onuradun motarentzat, energia berriztagarrien erabilera bultzatzea bizitegi-sektoreko aplikazio termikoen barruan, energia berriztagarrietako instalazioei lotutako biltegitzeari sistemak garatzea, eta kontagailuaren atzeko biltegitzeari.

477/2021 Errege Dekretuaren bidez onartutako eta Programa honen bitartez deitutako pizgarri-programaren arabera, 7. eta 8. osagai horien artean bildutako jarduketak egikaritzea aurreikusten da.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Horregatik, sektore kontsumitzaile guztietan energia berriztagarri termiko zein elektrikoen zabalkundea sustatzeko, kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemak garatuz kontsumoa hobeto kontrolatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, «EAE») lurraldean lotutako industria eta enpresa-sektorea bultzatzeko, 477/2021 Errege Dekretuaren eta Programa honen xedea da energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoa eta biltegitratzea bultzatzeko eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko sei pizgarri-programa onartzea, honako sei pizgarri-programa hauek, hain zuzen:

- a. *1. Pizgarri-programa* - Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- b. *2. Pizgarri-programa* - Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- c. *3. Pizgarri-programa* – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- d. *4. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- e. *5. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- f. *6. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.

Aipatzekoa da, gainera, 477/2021 EDaren bidez energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoa eta biltegitratzea bultzatzeko eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko sei pizgarri-programaren deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzaturakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

- 1.2. Aipatutako 477/2021 EDaren bidez adostu da energia-iturri berriztagarrien bidez egindako autokontsumo eta biltegitratzearekin eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarrien Programarako laguntzak zuzenean ematea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, ezarritako banaketa-irizpideei jarraikiz, 660 milioi euroko zenbatekoaz, dekretuaren V. Eranskinean finkatutakoari jarraikiz, EAEn kasurako 37.173.437 euroko zenbatekoaz zehazki.

Programa horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean daude jasota, eta horregatik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsekin finantzatzeko dira, 7. Osagarriari dagokionez plan horretan bildutako inbertsio tipologiari loturik (O7.I1) - *energia berriztagarri berritzaileak garatzea, eraikuntzan eta produkzio-prozesuetan integratuak*, eta, energia-iturri berriztagarrien bidezko biltegitratzeari dagokionez, 8. osagarriko inbertsioari loturik (O8.I1) - *energia-biltegitratzearen zabalkundea, kontagailuaren atzeko eta sektorean integratutako biltegitratzea bultzatzea*, aurrekoarekin batera egikaritzen dena.

Horrenbestez, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo eta biltegitratzearekin eta EAeko bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarri-programa honetara (aurrerantzean «Programa» edo «Laguntza-programa») bideratutako hornidura ekonomikoa 37.173.437 euro da, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (aurrerantzean «EEE») aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Behin dagozkion zeharkako kostuak kenduta (% 3) eta 1.500.000 euroko erreserba eginda Eusko Jaurlaritzak gauzatuko dituen zuzeneko inbertsioak egiteko, 477/2021 EDan ezarritakoari jarraikiz, laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa **34.558.233,89 euro** izango da, hori guztia 3. Oinarrian adierazitako banakapenari jarraikiz.

- 1.3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, 2021. urterako EEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eguneratzea onartu da, laguntza-programa hau horren barruan dagoelarik.

EEren 2021erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.4. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.5. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuesirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharratik.

Laguntzaren azken hartzailearen izaeraren arabera, honako hauek aplikatuko dira:

- a. Minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako betekizunak eta mugak (aurrerantzean, «**Minimis Erregelamendua**»), aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.
- b. 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak, horren arabera laguntza kategorian jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen direlako Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (aurrerantzean, «**651/2014 Erregelamendua**»), ingurumena babesteko laguntzen kategoriagatiko salbuespena aplikatuz (7. atala), aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.
- Xede horretarako, eta 651/2014 Erregelamenduko 11. artikuluko a) letran ezarritakoa betez, Estatuak Europako Batzordeari bidali zion 477/2021 Errege Dekretuaren bitartez araututako sei pizgarri-programei buruzko informazio laburtua (SA64209, SA64210 eta SA64211).

2. Laguntzen azken hartzaileak

- 2.1. Jarduera mota bakoitzerako aurreikusitakoaren arabera, laguntza-programaren deialdiko dirulaguntzen onuradun izan daitezke, oinarri hauetan eta 477/2021 EDan adierazitako irizpideen arabera:

2.1.1 4. oinarrian aurreikusitako 1., 2. eta 3. pizgarri-programen barruan, honako hauek hartuko dira laguntzen azken hartzailetzat:

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- a) Pertsona juridikoak eta enpresen edo pertsona fisikoen taldeak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomiko bat egiten dutenak, honako hauek barne:
1. Industrialde publiko edo pribatuetako kudeatzaileak.
 2. Energia-eremuko jarduketan enpresa ustiatzaile, errentari edo emakidadunak.
 3. Energia-zerbitzuetako enpresak, edo energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definitutako energia-zerbitzuen hornitzaileak. Zuzentzarau horren arabera aldatzen dira 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentzarauak, eta indargabetzen dira 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentzarauak, energia-auditoriei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez. Onuradun izateko, jabetzarekin horretarako ezarrita duten kontratuaren arabera jardun beharko dute enpresa horiek eta oinarri hauetan bildutako jarduketan tipologiaren batean barne hartutako inbertsioak burutu, energia-zerbitzuetako enpresa gisa izandako jarduketa eta egindako inbertsioa akreditatuta beharko dutelarik.
- b) Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentzaraua aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua arabera ere.

Horrez gain:

- 1. pizgarri-programaren azken hartzaileek honako talde hauetako baten barruan jardun beharko dute Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazional baten arabera (hemendik aurrera, EJSN): G, H, I, J, K, L M, N, O, P, Q, R edo S. Betiere administrazio publikoak ez badira.
- 2. pizgarri-programaren azken hartzaileek, berriz, A01 taldeari dagokion EJSN baten barruan jardun beharko dute, O17an izan ezik, edota B, C, D, E edo F taldeei dagokien EJSN baten barruan. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikuluan aipatutako Administrazio Publikoetako edozeinen sektore publiko instituzionala ere izan daiteke programa horren azken hartzailea, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak edo erakundeak ere, baldin eta, kasu batean zein bestean, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten badute.
- 3. pizgarri-programaren azken hartzaileek, aurreko 3. eta 4. paragrafoetan ezarritako taldeetako bati dagokion EJSN baten barruan jardun beharko dute.
- 1., 2. eta 3. pizgarri-programetan, laguntzen azken hartzailetzat hartuko dira energia-zerbitzuen enpresak edo programa bakoitzean bildutako sektoreetako establezimenduetan jarduten duten bestelako enpresak, betiere, jarduketaren bidez sortutako energia-zerbitzua, aurreko paragrafoetan adierazitako EJSN bat duen enpresa batentzat gauzatzen bada.

2.1.2 4. oinarrian aurreikusitako 4. eta 5. pizgarri-programetarako, honako hauek hartuko dira laguntzen azken hartzailetzat:

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- a) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoak.
- b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako toki-erakundeak eta sektore publiko instituzionala, azken horren kasuan, baldin eta merkatuan ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gauzatzen ez bada. Hala ez bada, 4. oinarrian aurreikusitako 2. edo 3. pizgarri-programen barruan hartuko dira.
- c) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona juridikoak, hirugarren sektoreko entitateak edo erakundeak barne. Oinarri hauen xedeetarako, hirugarren sektoreko entitateak edo erakundetzat hartuko dira merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten irabazi-asmorik gabeko entitate edo erakunde pribatuak. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten badute, 4. oinarrian aurreikusitako 2. edo 3. pizgarri-programen barruan hartuko dira.
- d) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak, Zerga Administrazioari Estatu Agentziaren Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta emanda egon beharko dutenak, eta minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie.
- e) Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako jabekideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dutenak.
- f) Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentzara aldutzen duen eta elektrizitatearen barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua arabera ere, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez badute. Hala ez bada, 4. oinarrian aurreikusitako 1., 2. edo 3. pizgarri-programetan bilduta daudela hartuko da aintzat, beren jardueraren alorraren arabera.

2.1.3 4. oinarrian aurreikusitako 6. pizgarri-programarako, honako hauek hartuko dira laguntzen azken hartzailetzat:

- a) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoak.
- b) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona juridikoak edo irabazi-asmorik gabeko entitate edo erakunde publikoak, kolektibo kalteberen eskura etxebizitza sozialak jartzen dituztela egiaztatzen dutenak, jarduera hori, mozkin ekonomikoren bat sortuko balu, jarduera ekonomikotzat hartzeko aukerarik ez dagoelarik estatuko laguntzen Europako araudiaren aplikazioaren xedeetarako, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalako zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- c) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta emanda egon beharko dutenak, eta, jasotzen dituzten laguntzei, minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen (EB) 1407/2013 Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie.
- d) Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako jabeakideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dutenak.
- e) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako toki-erakundeak eta sektore publiko instituzionala, estatu-laguntzaren existentzia kanpo uzteko aukera dagoenean. Estatu-laguntzaren existentzia kanpo uzteko aukera dagoela ulertuko da, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez dutenean, interes ekonomiko orokorreko zerbitzutzat jotzen direnean, edo neurriek, toki-mailako inpaktua soilik izaki, Estatu kideen arteko merkataritzaren gainean eraginik ez dutenean. Kasu horietan, jabetza publikoko etxebizitzetan soilik izango dute iturri berriztagarrien bidezko energia termikoa sortzeko instalazioak egiteko laguntzak jasotzeko aukera. Eta jabetza publiko hori ez da gutxienez bost urtean aldatuko, dagokion laguntza emateko ebazpenaz geroztik.

2.1.4 4. oinarrian aurreikusitako pizgarri-programa guztietan udalek, diputazio probintziales edo erakunde baliokideek, udalerrien mankomunitate edo elkarteek, eta dagokion tokiko edo autonomia-erkidegoko administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeak eta erakunde publikoek, laguntzan azken hartzaile izateko aukera izango dute, pertsona fisiko edo juridikoen, publiko edo pribatuen, zerbitzu-sektoreko edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-jarduketak gauza ditzaketen beste produkzio-sektore batzuetako instalazioetako jabeen ordezkari gisa, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako bete beharko delarik.

2.2. Honako hauek ezin izango dira laguntzen azken hartzaile izan:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren bat betetzen ez dutenak (hemendik aurrera, «DEO»).

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharririk ez izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

Azken hartzaileak egunean egon beharko du, halaber, Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari dagokionez, besteak beste, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta xede horretarako aintzat hartuko da azken hartzaileak laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, administrazio-organo emaileari eta instruktoareari baimena ematen diela informazio hori zuzenean kontsultatzeko zerga-administrazioarekin edo dagokion Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin, prozedura izapidetu bitartean beharrezkoa den guztietan.

- b) Krisi-egoeran dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan xede horretarako egiten den definizioari jarraikiz (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- c) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- d) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.

2.3. Laguntzen azken hartzaileek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketa subentzionagarriak ordaintzera bideratuko dute.

Arau hori aplikatuko da, halaber, pertsona fisiko edo juridikoen elkarrekin, publikoak edo pribatuak, jabekideen erkidegoak edo bereizitako beste edozein unitate ekonomiko edo ondare direnean, nortasun juridikoa izan gabe ere, proiektu, jarduerak edo portaerak gauza ditzaketenen edo dirulaguntza ematea dakarren egoeran daudenak, dirulaguntzaren zenbatekoa eta obren kostua haietako kideen artean jasanarazi behar den alde batera utzita.

Dena den, haien kideetako bat Dirulaguntzei buruzko Legeko 13.2 artikuluan ezarritako debeku batean edo bat baino gehiagotan erortzen bada, jabe horri ez zaio esleituko jasotako laguntza horretatik esleituko litzaiokeen proportziozko zatia, eta zati hori gainerako kideen artean hainbanatuko da, betiere dagozkion erakundeak betetzen jarraitzen badu azken hartzailea izateko eskatutako betekizunak.

2.4. 4. oinarrian aurreikusitako 4., 5. eta 6. pizgarri-programetarako, aurreko atalean dagozkion azken hartzaileentzat ezarritakoa beteko da, era berean.

Dena den, hartzaile horietako kideetako bat merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten badu, ez zaio esleituko jasotako laguntza horretatik esleituko litzaiokeen proportziozko zatia, eta zati hori gainerako kideen artean hainbanatuko da, betiere betetzen jarraitzen badute azken hartzaileak izateko eskatutako betekizunak.

Hala eta guztiz ere, kideetako bat merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duen pertsona fisikoa baldin bada, hari zati proportzionala esleitzeko aukera izango da, betiere betetzen baditu minimis Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak.

3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea

Laguntza-programa honetara bideratutako hornidura ekonomikoa **34.558.233,89€**, da guztira, EEren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera, eta pizgarri-programa bakoitzerako honako zenbateko hauen arabera banatua:

| | |
|--|-----------------------|
| 1. Pizgarri-programa - Zerbitzu-sektorean energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. | 6.333.358,92€ |
| <i>7. osagaia - Autokontsumo kategoría</i> | <i>5.277.799,1€</i> |
| <i>8. osagaia - Biltegitratze kategoría</i> | <i>1.055.559,82€</i> |
| 2. Pizgarri-programa - Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. | 11.247.355,64€ |
| <i>7. osagaia - Autokontsumo kategoría</i> | <i>9.430.144,06€</i> |
| <i>8. osagaia - Biltegitratze kategoría</i> | <i>1.817.211,58€</i> |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| | |
|---|----------------------|
| 3. Pizgarri-programa – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (8. osagaia). | 3.219.188,47€ |
| 4. Pizgarri-programa - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. | 9.251.691,38€ |
| <i>7. osagaia - Autokontsumo kategoría</i> | <i>8.636.457,03€</i> |
| <i>8. osagaia – Biltegitratze kategoría</i> | <i>615.234,35€</i> |
| 5. Pizgarri-programa - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (8. osagaia). | 238.411,45€ |
| 6. Pizgarri-programa - Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea (7. osagaia). | 4.268.228,03€ |

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 11ean hasiko da indarraldia amaitzen den arte, 2023ko abenduaren 31era arte, hain zuzen ere.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere pizgarri-programaren indarraldia amaitu ez bada (2023ko abenduaren 31), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie, alde aurreko laguntza-eskaeretan izaten diren ezespren edo errebokekioen arabera, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebatzen ez den arte.

Horrez gain:

- 477/2021 EDko 10. artikuluko 3. atalean adierazitakoarekin bat etorritik, pizgarri-programa bakoitzeko aurrekontua zabaltzeko aukera izango da, bere osotasunean edo kategoría bakoitzeko, hala badagokio, xede bererako aurrekonturik balego, eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada.
- 477/2021 EDko 7. artikuluko 6. eta 7. ataletan adierazitakoarekin bat etorritik, Programa honi esleitutako aurrekontua murrizteko aukera izango da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako baldintzak, mugarrak eta helburuk betez.
- 477/2021 EDko 10. artikuluan, eta bereziki 12. atalean, adierazitako mugekin bat etorritik, pizgarri-programa bakoitzeko aurrekontua, Programaren indarraldia amaitu ondoko bi hilabeteetan, pizgarri-programa baterako —eta, hala badagokio, kategoría baterako— partidetako bat agortu bada, EEEK jakinarazitako eta Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak alde aurretik baimendutako pizgarri-programa beraren —eta, hala badagokio kategoriaren— zuzeneko inbertsioak finantzatzeko baliatu ezin izan diren aurrekontu-soberakinak partida horiei gaineratzeko aukera izango da.

Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

- 4.1.** Jarraian zerrendatzen direnak jarduketa subentzionagarriak izango dira, I. ERANSKINEAN ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta pizgarri-programekin bat datoz.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- a. *1. Pizgarri-programa* - Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- b. *2. Pizgarri-programa* - Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- c. *3. Pizgarri-programa* – Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- d. *4. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.
- e. *5. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.
- f. *6. Pizgarri-programa* - Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.

Jarduketa subentzionagarritzat hartzen dira, halaber, aurreko 1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programen barruan, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan arautu gabe egonik, programa bakoitzaren aplikazio-sektoreetan egiten diren sare-instalazio isolatuak.

- 4.2.** 1., 2. eta 3. pizgarri-programen jarduketarako laguntzen azken hartzaileek jaso beharreko laguntzek, 651/2014 Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugak bete beharko dituzte, eta ingurumena babesteko laguntzen kategoriari dagokion salbuespena aplikatuko da (7. atala), aplikatzekoak izan litezkeen Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Sorkuntza berriztagarriko instalazio berriei lotutako biltegitratze-aktiboei dagokienez, lehendik daudenak hobetzea edo berriz instalatzea, edo lehendik dauden autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea eranstea barne, finantzaketak 651/2014 Erregelamenduko 4.2 artikuluan ezarritakoa bete beharko du, bikoizketa artifiziala saihesteko. Ildo horretan, alde aurretik adierazitako atalase-maila aplikatuko zaie, elkarren artean hiru urteko epe bat utzita sorkuntza berriztagarriari gehi biltegitratzean egindako inbertsioetarako jasotako laguntza guztiei.

- 4.3.** 4., 5. eta 6. pizgarri programen jarduketarako eta zuzeneko inbertsioetarako laguntzen azken hartzaileek jaso beharreko laguntzak, Programa honen III. ERANSKINEAN aurreikusitako laguntza-zenbatekoen mugei lotuko zaizkie.

Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten 4., 5. eta 6. pizgarri-programen azken hartzaileei, minimis Erregelamenduan ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eta kudeatzeko eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

- 4.4.** 4. pizgarri-programaren azken erabiltzaileek justifikatu beharko dute, laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura, instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela, II. ERASKINEAN ezarritakoaren arabera.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

4.5. Jarduketan hautagarritasun-xedeetarako, 4., 5. eta 6. pizgarri-programen laguntzen azken hartzaileentzat onartuko dira, soil-soilik, 477/2021 Errege Dekretua BOEn argitaratu zenez geroztik (2021eko ekainaren 30a) hasitako jarduketak, eta **1., 2. eta 3. pizgarri-programen** azken hartzaileentzat, berriz, laguntzek pizgarri-izaera izaki, laguntzaren eskaera erregistratu zenez geroztik hasitako jarduketak onartuko dira soilik.

Aurrekoa aplikatzekoa da alde batera utzi gabe eskaera aurkezteko edo dagozkion inbertsioak burutzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak, hala nola proiektua, memoria teknikoak, ziurtagiriak, miatze-zundaketak eta erantzun termikoko testak instalazio geotermikoen kasuan, eta baliabide eolikoak neurtzeko kanpaina, horiek guztiak subentzionagarritzat hartu ahalko direlarik, eskaeraren aurretik fakturatuak izan badira ere, betiere prestakuntza-jarduketa horiek 477/2021 ED BOEn argitaratu zen dataren (2021eko ekainaren 30a) ondoren hasi badira.

4.6. Laguntzen zenbatekoa Oinarri hauetako II. ERANSKINEAN jasotakoaren arabera eta jarduketa subentzionagarrien tipologia bakoitzerako, baita laguntzaren azken hartzaile mota bakoitzerako ere.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen arabera

4. Oinarrian eta III. ERANSKINEAN jasotakoaren arabera. Gainera, enpresa eta proiektu bati emandako laguntzek ezin izango dute inoiz 15 milioi euroko zenbatekoa gainditu.

5.2. Europako araudi aplikagarria

1. eta 4. Oinarrietan aipatutakoari jarraikiz.

5.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin

Ematen diren pizgarri-programak bateraezinak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk helburu berberekin emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

5.4. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea

a) Dirulaguntzei buruzko Legeko 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, laguntzaren azken hartzaile batek azpikontratatu duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: dirulaguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko azken hartzaileak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketan hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, 29. eta 68. artikuluko horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), azken hartzaileak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta Administrazio Elektronikaz diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean «**21/2012 Dekretua**»), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz, Euskadi.eus webgunean eta EEren (www.eve.eus).) webgunean eskuragarri dagoena, hori guztia, pertsona fisikoen kasuan 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoa aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Eskaera bakar bat aurkeztu beharko da aurreikusitako pizgarri-programetako edozeinetan laguntzaren xede izatea nahi den instalazio bakoitzeko, Errege Dekretu honetan eskaeren artean ezarritako bateraezintasun-araubidea ere kontuan hartuta.

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, **6. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Eskaeren onarpena hautatzeko aldiaren xedeetarako, eta **4.5 Oinarrian** ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko:

- 4., 5. eta 6. pizgarri-programen laguntzen azken hartzaileentzat eskatuko da, laguntzaren xede diren instalazioak egikaritzeari dagozkion fakturretako datak 477/2021 Errege Dekretua BOEn argitaratu zen egunaren (2021eko ekainaren 30a) ondokoak izatea.
- 1., 2. eta 3. pizgarri-programen laguntzen azken hartzaileentzat, egikaritzeko edozein konpromiso irmoren datak, baita kontratu, faktura eta egiaztagirien datak ere, aurkezten diren programari dagozkion deialdian eskaera erregistratu zen dataren ondorengoak izango dira, 4.5 Oinarrian deskribatutako prestaketa-jarduketan kasuan izan ezik.
- Pizgarri-programa guztietarako, laguntza eskatzeko erabilitako aurrekontuek, 477/2021 Errege Dekretua argitaratu ondoko data batekoak izan beharko dute (2021eko ekainaren 30a).

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez **8.1 oinarriaren** lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen ez bada, eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada, eskaerak behin-behineko erreserbako zerrendan erregistratzeko aukera izango da, **3. Oinarrian** adierazitakoari jarraikiz.

Laguntza-eskaerak Oinarri hauetako II. ERANSKINEAN adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira, laguntzaren azken hartzailearen tipologiaren eta diruz lagundu nahi den jarduketaren arabera.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertze beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

8.1. Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 62.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (hemendik aurrera, «**36/2020 Errege Lege Dekretua**»), eta kontuan hartuta aurreikusitako laguntzak bideratzen direla beste proposamen batzuekiko konparaziozko balioespenaren beharrik ez duten jarduketa edo egoera zehatzak finantzatzera, laguntza-eskaerak ebazteko dira konkurrentzia jarraituko prozedura baten bitartez, behin egoera edo jarduketa subentzionagarriaren konkurrentzia egiaztatu eta eskatutako gainerako betekizunak bete ondoren, deialdietan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Hala, eskaerak aurkezten diren ordena zorrotzaren arabera aztertu eta tramitatuko dira.

8.2. EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera.

Ebazpenean honako hauek azalduko dira: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduketa, (ii) haren zenbatekoa (kopuru gordina, azken hartzailearen izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) funtsen jatorria, (iv) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, eta (v) eskaerari ezezkoa emanez gero, ezezkoaren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**»).

8.3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

8.4. Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren dirulaguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

9.1. Gehienez bederlatzi hilabeteko (9) epean emakida-ebazpena jakinarazteko dataz geroztik, eta dirulaguntza onartu ondoren, laguntzen azken hartzaileek aukera izango dute EEeri emandako laguntzaren % 50 aurrerakin gisa eskatzeko, EEEK emandako eskaera-ereduari jarraikiz, eta, betiere, honako ezaugarri hauek betetzen badira:

- a) Subentzionatutako jarduketak 50.000 eurotik gorako kostu subentzionagarria izan beharko du, emakida-ebazpenaren arabera.
- b) Espainian ezarritako banku batek edo beste finantza-entitate batek emandako bermea ezarriko zaie aurrerakinei, Erregelamenduko 45. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez, edo bestela Espainiako edozein erakundek edo administrazio publikok berme gisa eskaintako kreditu-lerro bat. Bermea EEEK emandako eredura egokitu beharko da, eta aurrerakinaren zenbatekoaren % 100 bermatu beharko du.
- c) Aurrerakinak erabiliko dira, soil-soilik, subentzionatutako proiektuko gastuak estaltzeko, eta gastu horiek ongi justifikatuko dira.
- d) Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 61.3 artikuluan ezarritakoa betez, aurrerakin horietako azken hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean daudela, Estatuko Aurrekontu Orokorretan Europako funtsak kudeatzeko espezifikoki kontsignatutako kredituen kontura alde aurretik eman zaizkien beste edozein aurrerakin itzultzeko betebeharren ordainketari dagokionez.

EEEk aurrerakina ordainduko du laguntzaren azken hartzaileak xede horretarako adierazitako banku-kontuan, behin 9.1 oinarri honetan adierazitako baldintza guzti-guztiak bete ondoren.

- 9.2.** Gehienez hemezortzi (18) hilabeteko epean laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik, laguntzen azken hartzaileek justifikatu beharko dute laguntzaren xede den jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela.
- 9.3.** Azken hartzaileek laguntzaren justifikazioa EEEEn egin behar dute, elektronikoki, **6. oinarrian** adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe.
- 9.4.** Laguntzen azken hartzaileak aplikatzekoa den oinarri hauetako II. ERANSKINEAN adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, eta, espezifikoki, laguntzaren azken hartzailearen eta egikaritu den jarduketaren arabera adierazitakoa. Horri dagokionez, espresuki adierazten da ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko.
- 9.5.** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla jasotzen duten ziurtagirien akreditazioa automatikoki eta ofizios egiaztatuko du EEEK, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzkoak izan ezik. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.
- 9.6.** Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken hartzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken hartzaileak zuzentze-jakinazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- 9.7.** EEEK ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea, eta justifikazioa atal honetan ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebotatzea eta Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.
- 9.8.** Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespina positiboa bada, EEEK laguntza ordaintzeari ekingo zaio, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa aipatuz, horri dagokionez ezar daitekeenari jarraikiz.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebotazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera. Lehendik aurrerakin bat eman bada, eta aplikatzekoa balitz, aurreratutako zenbatekoa partzialki itzultzeko espediente bat ere irekiko litzateke, errebotatzean jasotakoaren arabera.

Aldiz, laguntzaren azken hartzaileak:

- Justifikazio-betebeharra betetzen ez badu **9. Oinarrian** aurreikusitakoari jarraikiz.
- Oinarri hauetan eta/edo dirulaguntzen alorrean ezarritako araudian bildutako ez bestelako edozein baldintza betetzen ez badu,

Laguntzaren erabateko errebotazio espediente bati emango dio hasiera EEEK. Lehendik aurrerakin bat eman bada, aurreratutako zenbatekoa osorik itzultzeko espediente bat ere irekiko litzateke, errebotatzean jasotakoaren arabera.

Laguntzaren bi errebotazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, eta, bidezko bada, aurrerakina itzultzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

Laguntzaren aurrerakina ordaintzeko eskatu ondoren laguntza osorik edo partzialki itzuli beharko balitz, laguntzaren azken hartzaileak errekerimendu hori betetzen ez badu EEEKo zuzendari nagusiak horretarako emandako Ebazpenari jarraikiz, laguntzaren azken hartzaileak emandako bermea exekutatu da, dagozkion zatian eta baldintzetan.

- 9.9.** Laguntzaren azken erabiltzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEK dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen dokumentazioa EEEKi aurkeztu ondoren.
- 9.10.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak, bere erakunde autonomiadunek edota EEEK emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Azken erabiltzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, hauex izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo azken erabiltzaileei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 21. artikulua).

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahaliko ditu, egingako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien azken hartzaileei alde aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEk onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken hartzaileari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebotatzeko espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEk dirulaguntza partzialki edo erabat errebotatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak

Deialdi honen xede den laguntzen azken hartzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean onuradunak berariaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, dirulaguntzen deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei eta gainerakoei dagokionez, baita laguntzen deialdi honi dagokionez ere.
- c. Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioari emateko eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko, dirulaguntzen deialdi honen kargura eta, espezifikoki EEEk era berean nahitaez Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari igorri behar diona 477/2021 EDaren IV. eranskinean aurreikusitakoa betetzeko.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- e. Kudeaketaren ardura duen organoa den heinean 477/2021 EDko 8. artikulua EEri agindutako betebeharrak guztiz betetzen direla zaintzea, eta, aldi berean, EEri zeregin horretan laguntzea. Ildo horretan, laguntzen azken hartzaileek honako hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte espresuki:
- Deklaratutako gastua ordaindu dela eta aplikatzekoa den legeria betetzen duela.
 - Gastuaren finantzaketa Europar Batasunaren beste programa eta tresna batzuekin batera gertatzen bada, laguntzak ez duela kostu bera estaltzen.
 - Gastuaren finantzaketa ez dela beste finantzaketa-araubide nazional batzuekin bikoizten.
 - Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoen kasuan izan ezik, eragiketarekin lotutako transakzioetarako kontabilitate-sistema bereizi bat edo kontabilitate-kode egoki bat erabiltzen dutela bermatzea.
 - Iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta neurrizkoak ezartzen dituztela, atzemandako arriskuen arabera.
 - Auditoria-pista egoki bat edukitzeko behar diren auditorien eta gastuaren gaineko dokumentazioa erabilgarri dagoela bermatzeko prozedurak ezartzen dituztela.
 - Subentzionatutako eragiketa guztien administrazio-egiaztapen egokiak egitea ahalbidetzen dutela, gastuaren erregularatasuna, ordainketen errealitatea eta laguntzaren baldintzetarako egokitasuna bermatu ahal izateko.
 - Adierazgarritasuna bermatzen duen laginketa metodo baten bitartez hautatutako eragiketa zehatzak lekuan bertan egiaztatzea ahalbidetzen dutela.
 - Jasotako laguntza-zenbatekoaren jarraipen zehatza eta berezia egiten dutela, minimis Erregelamenduak eta 651/2014 Erregelamenduak (EB) 13. artikuluan ezarritako mugak, baldintzak eta laguntza-intentsitateak betetzen direla egiaztatzeko, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduari eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari kudeatzeko eta egikaritzeko aplikatzekoa den beste edozein arau edo erregelamendu ere aplikatuz.
 - Finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmentzen dela, bidezko bada, Europar Batasunaren ikurrarekin eta «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» dioen finantzaketa-adierazpen egoki batekin, bereziki ekintzak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzailearen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarri, komunikabideak eta publikoa barne.
 - Proiektuak diseinatu eta egikaritzeko base guztietan eta jarduketa bakoitzerako «kalte esanguratsurik ez egitearen» printzipioa eta klima-etiketa digitala guztiz betetzen direla bermatzen dela, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 EB Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoari jarraikiz.
- f. EEri, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- g. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken erabiltzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, teknikoari edo urbanistikoari, edo beste edozein izaeratakoari.
- h. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketan xede izan daitezkeela kontuan hartuta. Dokumentuen erabilgarritasuna, Europako funtsei aplikatzekoa den araudian ezarritakoari lotuko zaio.
- i. Pertsona fisikoak ez diren laguntzen azken hartzaileek kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute laguntzaren xede den jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- j. Subentzionatutako ondasunaren titularra izan beharko du onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik.

Laguntzaren azken erabiltzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, aldez aurretik ezarritako denbora-tartea igaro baino lehen:

- Egiaztatu beharko du eta EEEn aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela Oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
 - Ondasun horrek energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo eta biltegiarekin eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarrien Programaren laguntza jaso duela.
 - Erosle berriak laguntzaren azken erabiltzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.
- EEEn egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

- k. Publizitate-alorreko betebeharrei dagokienez:
- Argitalpenetan, hedatze-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten duen edozein erreferentziak kasuan-kasuan Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean erabilgarri egongo den Programaren Irudi Eskuliburuan dauden betekizunak bete beharko ditu, non Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa azalduko den 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, hori guztia horri dagokionez ezarritakoa eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 18.4 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 31. artikuluan aurreikusitakoa betez.
 - Gainera, instalazioak seinalizatutako dira irudi-eskuliburuan edo irudi-eskuliburuetan adierazitakoari jarraikiz.
 - Horrez gain, jarduketa guztietarako, 4., 5. eta 6. pizgarri-programetan jasotako bizitegi-sektoreko jarduketetarako izan ezik, pantaila bat jarriko da ondo ikusteko moduko toki batean, I. ERANSKINEAN adierazitako sorkuntza- eta kontsumo-datuak erakusgai jartzeko.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- Kasu guztietan, finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmendu beharko da, bereziki jarduketara subentzionagarriak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarriz, komunikabideak eta publikoa barne.
- Horrez gain, 100 kW-tik gorako potentzia izendatuko sorkuntza-instalazioetarako, plan estrategiko bat aurkeztuko da, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegiatzea, osagai bakoitza hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena adierazita, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEen eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere.

Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du. EEEK emango du dokumentu hori, eta atal honetan alde aurretik adierazitako azken hartzailearen argitalpen edo webguneetan egongo da eskuragarri.

- l. EEEK hala eskatzen baldin badio, azken erabiltzaileak konpromisoa hartzen du erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazioa baimentzeko ere, hamar (10) urteko epean, EEEK dirulaguntza ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita.
- m. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEEri, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioaren berri ere.

12. Ez-betetzeak eta dirua itzultzea

Laguntzaren azken hartzaileak jasotako dirulaguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagokion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari % 25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kopuru bat esaten ez badu), dirulaguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Oinarri hauetan, 477/2021 Errege Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **14. oinarrian** aurreikusitako gainerako arau aplikagarriak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko litzaioke EEEri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Titulua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, araubidea eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEEKo zuzendari nagusiak du.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

13. Informazio-klausula eskatzailei

| Datuen babesari buruzko informazioa (Datuen babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko) | |
|---|---|
| Tratamenduaren arduraduna | ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) tel.: 94.403.56.00 harremana DPO: dpd@eve.eus |
| Helburua | - Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak. |
| Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea | - Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. |
| Emakiden hartzaileak | Kontrol-arloko eta kontrol-alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak. Zehazki, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa. |
| Interesdunen eskubideak | Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEeri idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian. Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus |
| Dirulaguntzaren azken hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEeri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridikoa, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEeri datu pertsonak behar bezala lagatzeko. Ordezkapena gauzatzeko, ordezkarria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentzialtasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ezin izango zaizkio jakinarazi, non eta haren ordezkatuak espresuki baimena eman ez dion. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Ordezkarriak segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEerentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEeri jakinarazi beharko dio berehala. | |

14. Azken xedapenak

1. EEeren erabakiak izaera administratiboa du eta EEEK kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEK.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken erabiltzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEK eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
- 477/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan;
 - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa;
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
 - Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, laguntza kategorija jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duena minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua eta Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalako zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.
 - 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituena, bere azken xedapenetan lehenaren arabera oinarritzekoak diren xedapenetan;
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena; eta
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
- I. ERANSKINA-JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIEN BETEKIZUNAK ETA KOSTU HAUTAGARRIAK
- II. ERANSKINA - DOKUMENTAZIOA
- III. ERANSKINA - GEHIENEN KOSTU SUBENTZIOAGARRIAK, ERREFERENTZIAZKO KOSTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

I. ERANSKINA

JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIEN BETEKIZUNAK ETA KOSTU HAUTAGARRIAK

Jarduketa subentzionagarriek honako betekizun hauek bete behar dituzte, baita honako eranskin honetan bildutakoak ere:

- **1. pizgarri-programa:** Zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, establezimenduetako autokontsumorako edo zerbitzu-sektoreko instalazioetarako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.
- **2. pizgarri-programa:** Ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, establezimenduetako autokontsumorako edo 1. pizgarri-programan aurreikusi gabeko produkzio-sektoreetako instalazioetarako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.
- **3. pizgarri-programa:** Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.
- **4. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, bizitegi-sektoreko, hirugarren sektoreko eta administrazio publikoetako autokontsumorako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.
- **5. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, bizitegi-sektorean, hirugarren sektorean eta administrazio publikoetan lehendik dauden iturri berriztagarrien bidezko energia elektrikoa sortzeko instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.
- **6. pizgarri-programa:** Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, klimatizatorako edo etxebizitzetan ur bero sanitarioa sortzeko.

IE.1 Jarduketa subentzionagarriak

A. 1., 2 eta 4. pizgarri-programen barruan energia berriztagarria sortzeko jarduketetan, autokontsumorako jarduketa fotovoltaikoak eta eolikoak hartu dira.

Programa honen xedeetarako, autokontsumo-instalazioak dira energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarrita daudenak.

Halaber, Programa honen xedeetarako jarduketa subentzionagarritzat hartzen dira, halaber, 244/2019 Errege Dekretu horretan arautu gabe dauden sareko instalazio isolatuak.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Jaso beharreko gehieneko dirulaguntza bat etorriko da instalazioaren potentziako lehen 5 MW-ekin. Muga hori gainditzen duten potentziak instalatzeko aukera badago, baina inoiz ere ezin izango da laguntzarik jaso 5 MW horien gainetik.

Teknologia bakoitzeko (eolikoa edo fotovoltaikoa) jarduketa bat bakarrik hautatzeko aukera izango da laguntzaren azken erabilzaile eta kokaleku bakoitzeko edo kontsumo berberari edo berberei loturik.

B. Ildo beretik, Programa honen xedeetarako hautagarria izateko, eta 1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programei aplikatzeko denari dagokionez, biltegitze-instalazioak izango dira elektrizitatearen azken erabilera, energia hori sortu zen unearen ondoko beste une baterako geroratzen dutenak, edota, energia elektrikoa biltegitzetzeko moduko energia bihurtzen dutenak, energia hori geroago berriz ere energia elektriko bihurtu ahal izateko. Instalazio horiek hautagarriak izan daitezten, biltegitzea ezin izango zaio sareari zuzenean konektatu, eta autokontsumo-instalazioaren zati izango da.

Sorkuntza-potentziaren aldean biltegitze-kapazitate instalatuko 2 kWh/kW-ko ratioa gainditzen ez duten biltegitze-instalazioak bakarrik hartuko dira hautagarritzat. Gainera, gutxienez 5 urteko bermea izan beharko dute.

Biltegitzetzeko berun-azido teknologiak ez dira hautagarriak izango.

3. eta 5. pizgarri-programen arabera, berriztagarrien autokontsumorako lehenik dauden instalazioetan biltegitze-instalazioak txertatzea jarduketa subentzionagarria izango da.

Bestetik, 1., 2. eta 4. pizgarri-programen kasuan, sorkuntza-instalazio berriak izango dira jarduketa subentzionagarriak, eta biltegitze-instalazioak lotuta eramateko aukera izango dute.

C. Programa honek onartutako edozein pizgarri-programari lotutako instalazio guztiek, 6. programako toki-berokuntzako aparatuen Biomasa tipologia izan ezik, dirulaguntzaren xede den instalazioak sortutako energia elektrikoa edo termikoa monitorizatzeko sistema bat eduki beharko dute.

Sistema horren funtzionalitateak honako hauek izango dira:

– Sistema horrek erakutsi beharko du, gutxienez, egunean, hilean eta urtean sortutako energia berriztagarria, eta aldi horietan kontsumitutako energia.

– Aurrekoaz gainera, sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, hala nola saihestutako CO2 emisioak eta instalazioaren jabearentzat sortutako aurrezki ekonomikoa.

– Pantaila bat jarri beharko da ondo ikusteko moduko toki batean, datu eguneratuak erakusteko. Hori programa guztietan aplikatzeko aukera izango da, 4., 5. eta 6. pizgarri-programetan bildutako bizitegi-sektoreko jarduketarako izan ezik.

– Horrez gain, edozein jarduketarako, informazio hori gailu mugikorren bidez eskuratzeko aukera bermatuko da.

D. 4. programaren jarduketa subentzionagarrietarako aurreikusi beharko da, laguntzaren xede den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela.

E. 6. pizgarri-programaren barruko jarduketa subentzionagarrien barruan, etxebizitzetako ur bero sanitariorako eta/edo klimatizaziorako eguzki-teknologia termikoa, biomasa, geotermikoa, hidrotermikoa edo aerotermikoa hartzen dira, aire-aire teknologiak izan ezik.

Egindako instalazioek, bidezko bada, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita aplikatzeko zaien beste edozein araudi ere. Elektrikoki eragindako bero-ponpek 2,5etik gorako SPF bat izan beharko dute.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

F. Klimatizaziorako edo ur bero sanitariorako biomasa-instalazioen kasuan (6. pizgarri-programaren barruan bildu dira):

Tipologia horretako instalazioek berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez % 80 murriztea lortu beharko dute, «Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefiziente» % 100 izan dadin, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen (EB) 2021/241 Erregelamenduko VI. Eranskinak ezarritakoa betez.

Gainera, toki-berokuntzako aparatuek edo MW 1etik beherako galdarak biltzen dituzten jarduketek:

– Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen (EB) 2015/1185 erregelamenduaren edo Batzordearen (EB) 2015/1189 Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagokoak.

– Jarduketa tipologia horretarako oinarri hauetan eta deialdian ezarritako betebeharrerikiko eskakizun gehigarri gisa, onuradunak dokumentu-erregistro nahikoa atxikiko du, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasea betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa. Bost urteko epean atxikiko da erregistro hori.

Horrez gain, MW 1etik 50 MW-ra bitarteko instalazioetatik eratorritako emisioek bete egin beharko dituzte, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duen errekuntza-instalazio ertainetatik eratorritako agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako emisioak mugatzeari buruzko abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritako emisio-betekizunak, baita Estatuan haiei aplikatzekoa den beste edozein legeria ere.

Biomasa bete egingo ditu 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia berriztagarrietatik eratorritako energia-erabilera sustatzeari buruzko 2018/2001 Zuzentarauaren 29.-31. artikuluetan ezarritako jasangarritasun-irizpideak, baita dagozkion egintza eskuordetuak eta egikaritzekoak ere.

6. pizgarri-programan bildutako toki-berokuntzako aparatuen aurrealdea itxita egongo da.

IE.2 Kostu hautagarriak

1. Jarraian zerrendatzen direnak dira kostu hautagarriak:

- a) Laguntzaren xede den jarduketa tipologiekin lotutako ekipo eta materialetan inbertitzea, hala badagokio, biltegiatze-sistemei dagokiena barne.
- b) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obrak eta/edo instalazioak egikaritzeko kostuak.
- c) Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketarekin lotuta daudenean.
- d) Goi Tentsioko eta Behe Tentsioko sistema elektriko orokorra, transformadoreak, ebakuazio-linea eta garraio- edo banaketa-sare elektrikoarekiko lotunerainoko sistema eta azpiegitura elektriko gehigarriak, laguntzaren xede den jarduketa tipologiaren arabera beharrezkoak direnean. Bidezko bada, dagozkion babesak eta ekipamenduak barne hartuko dira, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoari eta haren Jarraibide tekniko osagarriei edo Goi Tentsioko Instalazio Elektrikoan Erregelamenduaren eta haren Jarraibide tekniko osagarriei jarraikiz.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

e) Laguntzaren xede den proiektuarekin hornitutako instalazio kontsumitzaileen energia elektrikoaren edo termikoaren sorkuntza, metaketa eta eskaria kudeatzeko, aktiboki kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistemak, kudeaketa eta produkzioa optimizatzeko lagungarri direnak. Ekipo horiek laguntzaren onuradunaren jabetzakoak izango dira, eta laguntzaren xede den jarduketari lotuko zaizkio:

f) Baliabidea kokalekuan neurtzeko sistemak, instalazio geotermikoetarako Erantzun Termikoko Testak eta miatze-zundaketak barne.

g) Obra zibilak, laguntzaren xede diren jarduketekin zerikusia dutenean, eta proiektua behar bezala egikaritzeko beharrezkoak diren obrak, esaterako, estalkia indartzeko edo, hala badagokio, sorkuntza-instalazioak okupatutako estalkiaren zati proportzionala ordeztzeko lanak. Gainera, honako partida hauek obra zibil subentzionaagarritzat hartuko dira: proiekturako beharrezkoak diren eraikuntzak; sorkuntza-instalazioarekin edo energia elektrikoa integratzeko eta eskaria kudeatzeko sistemekin lotutako landak, hondeaketak, zangak eta kanalizazio eta hodiak; igeltserotza-laguntzak; beharrezkoak diren instalazio osagarriak; instalazioaren barne-zortasuneko bideak; instalaziorako sarbideen egokitzapena; kontrol-eraikinak; muntaketa-plataformak; aldi baterako instalazioak; zaharberritze-lanak; eta obren ondoko ingurumen-neurri zuzentzaileak. Kostu hautagarritzat hartu ahal izateko, obrek honako baldintza hau bete beharko dute: sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen gutxienez % 70 (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak alde batera utzita), beste material batzuk balorizatzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko prestatzea, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne. Ildo beretik, eraispina dakarten proiektu finantzatuetan, eraispen selektiboaren praktika hartuko da barne.

h) Kokalekuan lehendik dauden instalazioak eraistearen kostua, baldin eta horrelakorik aplikatzen bada horren ordez berriztagarrien instalazio bat egiteko, baldin eta honako baldintza hau betetzen bada: sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen gutxienez % 70 (pisu garbian, eta LER 17 05 04 kodea duten hondakinak alde batera utzita), beste material batzuk balorizatzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko prestatzea, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne. Ildo beretik, eraispina dakarten proiektu finantzatuetan, eraispen selektiboaren praktika hartuko da barne.

i) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu edo memoria teknikoen idazkuntzaren kostuak.

c) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.

k) Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obraren eta muntaketaren Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.

l) Laguntzaren eskaera kudeatzeko kostuak, txostenak eta eskaera egiteko eskatutako gainerako dokumentuak idaztea barne. Xede horretarako, laguntza-eskaera kudeatzeko kostutzat hartuko dira, laguntzaren eskatzaileak edo azken hartzaileak, autonomia-erkidegoaren aurrean bere eskaeraren kudeaketa administratiboa eta dokumentala egiteko, enpresa edo profesional bati ordain liezazkiokoen gastuak. Gastu horiek hautagarritzat hartu ahal izateko, laguntza-eskaeran bildutako aurrekontuan islatu beharko dira, eta, jarduketaren gainerako gastuekin batera, kontratu, faktura eta ordainagirien bitartez justifikatu. Eskatutako laguntzaren zenbatekoaren % 4 gaingiditzen ez duten kudeaketa-gastuak bakarrik izango dira hautagarriak, espediente bakoitzeko 3.000 euroko mugarekin.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

m) Jarduketak egin izana justifikatzeko kudeaketa-kostuak, laguntza horiek justifikatzeko txostenak eta eskatutako gainerako dokumentuak idaztearen kostuak barne. Horri dagokionez, laguntzako jarduketak egin izanaren justifikazioaren kudeaketa-gastutzat hartuko dira, laguntzaren azken hartzaileak, proiektua osatzen duten jarduketak egin izana organo instruktoreari justifikatzeko kudeaketa teknikoak, administratiboa eta dokumentala burutzeagatik enpresei edo profesionaleri ordaindu ahalko lizkiekeen gastuak.

n) Auditoreak justifikazio-kontuaren gainean egindako txostena.

o) Jarduketa tipologia bakoitzaren espezifikoak izanik, beharrezko gisa ongi justifikatu diren beste partida batzuk, lagungarriak izan edo ez, atal honetako 3. puntuan gastu ez-subentzionarioari gisa bildutakoez aparteak.

2. Aurreko ataleko l), m) eta n) ataletan adierazitako gastuak ordaintzeko pizgarri-programetan guztira onartutako gehieneko kostu hautagarriak ezin izango du osorik eskatutako laguntzaren zenbatekoaren % 7 gainditu, espediente bakoitzeko 7.000 euroko mugarekin. Zerbitzu horien burutzapena eta fakturazioa, justifikazio-dokumentazioa aurkezteko emandako aldiaren egin ahalko da.

Ez da hautagarritzat hartuko aurrekoak ez bezalako ezein kostu, ezta laguntzaren azken hartzaileari 477/2021 ED indarrean hasten den data baino lehen fakturatu zaion ezein kostu ere.

3. Honako kontzeptu hauetan bildutako gastuak ez dira subentzionarioarritzat hartuko.

a) Jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) edo Produktzioaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko Zerga.

b) Gastu propioak, langileei lotutako gastuak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak izan.

c) Ingurumen-inpaktuko azterlanak eta proiektu teknikoak ikus-onesteko kostuak.

d) Proiektua garatzeko eskatzaileak ordaindu beharreko gainerako sustapen-gastu guztiak.

e) Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen, isunen, tasen edo tributuen kostua.

f) 1. atalean bilduta ez dauden gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak direnak.

g) Inbertsio-proiekturako zein ebakuazio-azpiegiturarako erabilitako lurra erostearen edo alokatzearen kostua.

h) Eskatzaileak harpidetutako aseguruak.

i) Zaintza eta segurtasuna, obra egikaritu bitartean eta martxan jarri arte.

j) Energiaren ebakuazioa bideragarri egiteko eskusiboez bestelako linea elektrikoaren egokitzapenak, birmoldaketak edo egikaritzapenak. Hortaz, subentzionarioarritzat hartuko dira, soil-soilik, sorkuntza-instalazioa —edo energia berriztagarriak sarean integratzeko sistemak— instalazio horien lotunearekin eta garraio- edo banaketa-linearekin lotzeko behar diren lineak, sistema elektrikoaren neurketa-puntuaren Erregelamendu bateratua onartzen duen abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

k) Errepide publikoetako eta instalaziorainoko bideetako sarbideak egokitzea.

l) Finantza-kostuak

4. Aurrekoaren salbuespen gisa, 4., 5. eta 6. pizgarri-programetarako kostu hautagarritzat hartuko da jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) edo Produkzioaren, Zerbitzuen eta Inportazioaren gaineko Zerga, betiere horiek guztiz edo partzialki berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukerarik ez badago.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

Eranskin honetan zerrendatutako dokumentazioaren xedea da, laguntza-eskaeraren eraginpeko proiektuari dagokion pizgarri-programan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Hala, eskatutako dokumentazioak ziurtatu beharko du programa bakoitzean proiektuei eskatutako baldintzak bete egiten direla, bai hautatutako programan sartzeko bai laguntza jasotzeko. Horrez gain, eskatutako dokumentazioak ahalbidetu beharko du, laguntzaren azken hartzaileak pizgarri-programa bakoitzean sartzeko behar diren betekizunak betetzen dituela egiaztatzea.

Halaber, egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioak ahalbidetu beharko du proiektuaren eta laguntzaren onuradunaren edo azken hartzailearen alderdi bat edo guztiak egiaztatzea.

IIE.A Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak (EEE) zuzenean lor dezan Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoaren bitartez. Nolanahi ere, eskatzaileak aukera izango du organo emaileari baimen hori emateko aukera espresuki ukatzeko, eta kasu horretan ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

IIE.A1 Pizgarri-programei aplikatzekoa den dokumentazio orokorra

a) Eskatzailearen, eta, bidezko bada, eskatzailea ordezkatzen duen pertsonaren NANaren/AIZren kopia, eskaera pertsona fisiko edo erakunde juridiko bat ordezkatuz edo talde, elkarte edo erkidego bat ordezkatuz aurkezten ote den adierazita. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak EEEri espresuki baimena ematen badio bere nortasun pertsonaleko datuak kontsulta ditzan.

Bestetik, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak administrazio publikoei eskumena ematen die bere esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

Eskaera ordezkarri baten bitartez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak ongi akreditatuta egon beharko du legeak ezarritakoari jarraikiz.

b) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoen kasuan, Enpresaburu, Profesional edo Atxikitzaileen Erroldan alta emanda egotearen ziurtagiria edo Zerga Administrazioari Estatu Agentziak emandako zentsu-egoeraren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, baita Minimis Erregelamenduari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere.

c) Eskatzaileak enpresak badira EB 651/2014 Erregelamenduaren arabera (jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisikoak alde batera utzita), erantzukizunpeko adierazpena, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakunde bat dela.

Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskineko 2. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- ✓ Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
- ✓ Negozioren urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

d) 1. 2. eta 3. pizgarri-programetara aurkezten diren laguntzen azken hartzaileentzat. dokumentu ofiziala, non eskatzailearen jardura ekonomikoari dagokion EJSN kode eguneratua adieraziko den, hala nola onuradunaren identifikazio fiskaleko txartela, zentsu-adierazpena, jardura ekonomikoen zerga, eratzeko eskritura, etab.

Energia-zerbitzuen enpresen edo programa bakoitzean bildutako sektoreetako establezimenduetan jarduten duten bestelako enpresen kasuan, betiere, jarduketaren eraginpeko bezeroari dagokion EJSN egiaztatu beharko da.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharrak bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak (EEE) zuzenean lor dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

f) Eskatzailearen titulartasunpeko kontuaren IBAN zenbakiaren banku-ziurtagiria, eta azkenean ebartziko den dirulaguntza kontu horretan ordainduko da, behin laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak bete ondoren eskatzailea onuradun bihurtzen denean.

g) Eskatzaileak edo haren ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non zehatz-mehatz jasota geratuko den jarduketaren eskatzailea(k) edo eskatzaileak(ek):

1. Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan aurreikusitako egoeretako baten eraginpean ez dagoela. Aipamen espresua egingo da beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo betetzen direla adierazita, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Eskatzaileak organo emaileari baimenik eman ez badio Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantziak zuzenean egiaztatu dituzan, eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 22. artikuluan aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztera behartuta ez badago Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 23. artikuluan aurreikusitako salbuespenak aplikagarriak direlako, adierazpen bat bilduko da, bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean dagoela espresuki adieraziz eta salbuespen horretarako lege-oinarria zein den argi eta garbi aipatuz.

2. Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboaren kopia aurkeztu beharko da.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Bidezko bada, 3. pizgarri-programaren kasuan, lehendik dagoen autokontsumo-instalazioari dagozkion inbertsioetarako jasotako laguntzak adierazi beharko dira.

3. 4., 5. eta 6. pizgarri-programetarako, onuraduna baldin bada merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jardura ekonomikoren bat egiten duen pertsona fisiko bat (autonomoak), azken hiru urteetan minimis erregimenaren arabera eskatutako edo jasotako laguntzen zerrendari buruzko adierazpena ere aurkeztu beharko du. Minimis Erregelamenduan ezarritako eskakizun eta mugen mende egongo dira horrelako jarduketak.

4. Azken hartzailea pertsona fisiko bat ez bada, azken erabiltzaile hori krisian ez dagoela dioen adierazpena, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europako Erkidegoko Jarraibideek ezarritakoaren arabera (Batzordearen komunikazioa, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31koa).

j) Laguntza-eskaera, eskatzaileak, edo, hala badagokio, haren ordezkariak, sinatua, non, besteak beste, honako datu hauen berri eman beharko duen:

| | |
|---|--------|
| Jarduketa zer pizgarri-programara aurkezten den | [...] |
| Jarduketa mota | [...] |
| Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena | [...] |
| Proiektuaren kostua, guztira: | [...]€ |
| Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne | [...]€ |
| III. eranskinaren arabera eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa | [...]€ |

k) Jarduketak egikarrituko ditu(zt)en enpres(ar)en aurrekontua, behar bezainbeste banakatua, 477/2021 EDaren BOEn argitaratu ondorengo data duena. Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken hartzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du adierazitako dokumentazio hori.

477/2021 EDaren 16.2 artikuluan 1., 2. eta 3. pizgarri-programetarako aurreikusitakoaren arabera, aurrekontu horiek ezin izango dute egikaritze-konpromiso irmorik eragin.

Kostu subentzionagarriaren zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikirako aplikatzekoa den kontratazio publikoko araudian ezarritako zenbatekoak, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 31.3 artikulua aurreikusitako kasuetako baten aurrean ez bagaude, laguntzaren azken hartzaileak egiaztatu beharko du gutxienez hiru hornitzailei eskaintzak eskatu dizkiela, agindu horretan ezarritakoa betez, eta memoria bat ere aurkeztu beharko du, non hornitzailearen hautaketa arrazoizko moduan justifikatuko den, baldin eta eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatu ez bada. Dokumentazio hori behin obra amaituta aurkeztu beharko da, justifikazio-dokumentazioaren zati gisa.

l) 100 kW-tik gorako potentzia izendatuko programa guztietarako, txosten bat aurkeztu beharko da honako hauek adierazita:

i. Plan estrategiko bat, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegitratzea, osagai bakoitza hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena barne, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEak eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere. Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du. Laguntzen deialdia egiten duen agintariak argitaratuko du dokumentu hori.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

ii. Proiektuak kalte esanguratsurik ez eragitearen printzipioa betetzearen justifikazioa, (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duen inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamenduan ezarritako ingurumen-helburuei dagokienez. Kasu horretan, jarduketak 100 kW-ko potentzia gainditzen ez badu, betetze horren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du eskatzaileak. Xede horretarako, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak gida batzuk argitara ditzake, justifikazio horren elaborazioa errazteko.

iii. Egindako obra zibiletan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinen % 70eko balorizazioa betetzen dela behar bezala egiaztatzeke, laborpen-memoria bat aurkeztuko da, non sortutako hondakinen kantitate osoa adieraziko den LER kodeen arabera sailkatuta, baita helmugako kudeatzaileen ziurtagiriak ere, lortutako balorizazio-ehunekoa adierazita. Balorizatu ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak ez dira kontuan hartuko helburu hori lortzeko.

m) Proiektua alde aurretik administrazio-baimenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren eraginpean jarri ez bada, edo inolako administraziori jakinarazi ez bazaio, eta, horrez gain, ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeko 7. artikuluan jasotako nahitaezko ingurumen-inpaktuko ebaluazio-kasuetako batean ere ez badago, proiektuaren sustatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, proiektuak ingurumenari kalterik ez diola eragiten azalduko duena.

Hori ez da aplikatuko estalkiko eguzki-teknologia fotovoltaikoaren alorrean aurrera eramandako jarduketetan. 6. programaren esparruko jarduketak direnean ere ez da aplikatzekoa izango.

n) Energia-zerbitzuen enpresek, energia-zerbitzuen enpresa gisa dihardutela egiaztatu beharko dute Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuko energia-zerbitzuen hornitzaileen zerrendan erregistratuz, eta egindako inbertsioa egiaztatuko da jabetzarekin egindako kontratua aurkeztuz.

IIE.A2 1, 2, 3, 4 eta 5 pizgarri-programei aplikatzekoa den dokumentazio teknikoa

1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programetarako, IIE.A1 atalean aurreikusitakoaz gainera, honako hauek egiaztatu beharko dira:

a) Elektrizitatea sortzeko energia berriztagarriak erabiltzeko instalazio berriaren proiektuaren deskripzio-memoria teknikoa, gutxienez honako informazio hau barne:

1. *Datu Orokorrak*

| | | |
|---|--------------------|------------------------|
| Proiektuaren kokapena (zuzendaritza) | | |
| Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitudea) | Lat; | Lon: |
| Teknologia (monokristalinoa, polikristalinoa...) | | |
| Kokapena (estalkia, lurzorua, fatxada...) | | |
| Modulu fotovoltaikoen potentzia izenduna: Marka, modeloa eta kopurua | | kWp |
| Inbertitzaileen potentzia izenduna Marka, modeloa eta kopurua | | kW |
| PVGIS sistemaren arabera instalazioak urtean sor dezakeen energia | | kWh/urtea |
| Instalazio mota | Isolatua | Sareari konektatua |
| Autokontsumo modalitatea (banakoa/kolektiboa) | Banakoa | Kolektiboa |
| Autokontsumo modalitatea (soberakinekin /soberakinik gabe) | Soberakinekin | Soberakinik gabe |
| «Soberakinekin» modalitatearen kasuan (konpentsazioarekin/sarerako salmentarekin) | Kompentsazioarekin | Sarerako salmentarekin |
| Kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala . | | |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2. Proiektuaren deskribapen teknikoa, gutxienez, honako hauek barne:

- Instalazioaren potentzia.
- Instalazioaren konfigurazioa: egitura mota (planokidea, inklinatua, jarraitzaileekin...) fotovoltaikoen kasuan, eta ardatz mota hautatzea energia eolikoaren kasuan.
- Orientazioa: fotovoltaikoen kasuan, hegoaldearekiko desbideratzearen eta inklinazio-angeluaren arabera, eta eolikoaren kasuan, berriz, tokiko haizearen kondizioen arabera.
- Errendimendu-kalkulua. Instalazio fotovoltaikoen kasu espezifikoan, Europar Batasunak garatutako PVGIS Irradiazio Fotovoltaikoko Informazio Geografikoko Sistemaren oinarritutako egingo da kalkulua, % 14ko galera estandarrak aintzat hartuta.
- Urteko produkzio-aurreikuspenaren simulazioa.
- Proposatutako ekipamendua:
 - o Elektrizitatea sortzeko ekipoak:
 - a) Elektrizitatea sortzeko ekipo kopurua (modulu fotovoltaikoak eta aerosorgailuak) eta haien potentzia unitarioa.
 - b) Marka eta modeloa
 - c) Produkzio-ekipoen teknologia mota: beste ezaugarri batzuen artean zehaztuko dira panel mota (monokristalinoa edo polikristalinoa) fotovoltaikoen kasuan, eta ardatzaren konfigurazioa eolikoaren kasuan.
 - o Inbertitzailea:
 - a) Inbertitzaile kopurua eta haien potentzia unitarioa.
 - b) Marka eta modeloa
 - c) Ezaugarri tekniko espezifikoak.
 - o Erregulagailua (instalatz gero):
 - a) Kopurua eta mota.
- Biltegitzea (instalatz gero):

| | |
|---|----------|
| Biltegitzea | Bai / Ez |
| Teknologia (berun-azidoa, gela, ioi-litioa,...) | |
| Bateria kopurua | |
| Biltegitze-sistemaren kapazitatea | kWh |
| Biltegitze-instalazioaren potentzia | kW |
| Lehendik dagoen autokontsumo-instalazioaren potentzia (3. eta 5. pizgarri-programetarako) | kW |

Biltegitze-sistemarik badago, kontuan hartu beharko da sorkuntza-potentiarekiko biltegitze-kapazitate instalatuaren ratioa, gehienez ere, 2 kWh/kW izan daitekeela.

- Jarduketa gehigarriak:

| | |
|---|----------|
| Amiantozko estalkia kentzen da? | Bai / Ez |
| Lehendik dauden instalazioak eraisten dira? | Bai / Ez |
| Markesina barne | Bai / Ez |
| Autokontsumo kolektiboa | Bai / Ez |

- b) Energia-sorkuntzako ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- c) Jarduketak egikarituko ditu(zt)en enpres(ar)en aurrekontua, behar bezainbeste banakatua, 477/2021 EDaren BOEn argitaratu ondorengo data duena. Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken hartzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du dokumentazio hori.
- d) Biltegitratze-sistemak barne hartuz gero, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, non egiaztatuko den biltegitratze-sistema, sareari zuzenean lotu beharrean, autokontsumo-instalazioaren zati izango dela.
- e) 4. pizgarri-programaren eraginpeko eskaeren kasuan, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, non aurreikusiko den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izango dela. Behin instalazioa egikaritu ondoren ere justifikatu egin beharko da estimazio hori, baita dagoen laguntzaren ordainketa ebatzi aurretik ere, II. eranskinean adierazitakoaren arabera (IIE.B.2 atala, b) letra, 3. zenbakia).

IIE.A.3 6. pizgarri-programari aplikatzekoa den dokumentazio teknikoa

6. pizgarri-programarako, IIE.A1 atalean aurreikusitakoaz gain, honako hauek egiaztatu beharko dira aurreikusitako instalaziorako:

A) Orokorra

- a) Energia termikoa sortzeko energia berriztagarriak erabiltzeko instalazio berriaren proiektuaren deskribizio-memoria teknikoa, gutxienez honako informazio hau barne:

1. Datu Orokorrak

| | | |
|---|------|--------------------------------------|
| Proiektuaren kokapena (zuzendaritza) | | |
| Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitudea) | Lat; | Lon: |
| Teknologia | | |
| Fabrikatzailea | | |
| Marka | | |
| Modeloa | | |
| Lehendik dauden instalazioak eraitsiko dira? | | Bai/Ez |
| Zer energia-iturri erabiltzen da gaur egun eskari termikoak betetzeko? | | Bat ere ez/Zehaztu |
| Familia bakarreko edo familia anitzeko (blokea) etxebizitza da? | | Familia bakarrekoa/Familia anitzekoa |
| Etxebizitza-blokeetarako: Bloke barruko etxebizitza eta lokalen kopurua | | Etxebizitzak Lokalak |
| Instalazio hibridoa: Instalazio horrez gain, ba al da instalazio konbentzionalen laguntzarik? | | Bai/Ez |

2. Proiektuaren deskribapen teknikoa, gutxienez, honako hauek barne:

- Instalazioaren potentzia (kW).
- Ekipo kopurua eta potentzia unitarioa (kW).
- Instalazioak urtean sor dezakeen energia (kWh/urtea).
- Klimatizazio-azalera (m²).

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- Instalazioaren funtzionamendua (orduak/urtea).
 - Dirulaguntza berria jaso dezaketen jarduketa gehigarriak:
 - o Klimatizazioko barne-banaketa berria eta eraispena; zoru bero-emailea, behe-temperaturako erradiadoreak edo bentilokontektoreak txertatzeko zirkuitu hidraulikoak, aerotermiako, geotermiako, hidrotermiako edo eguzki-energia termikoko proiektuetarako, baldin eta sistema horiek energia berriztagarriekin funtzionatzen badute % 100ean. Bidezko bada, ordeztutako instalazioaren argazki-erreportajea aurkeztuko da.
 - Lehendik dauden instalazioen eraispena.
 - o eguzki-energia termikoko edo biomasako instalazioetarako. Ordeztutako instalazioaren argazki-erreportajea erantsiko da.
- b) Sorkuntza termikoko ekipoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).
- c) Jarduketak egikaritzeko dituzten enpresaren aurrekontua, behar bezainbeste banakatua, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo data duena. Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken hartzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du adierazitako dokumentazio hori.

Proiektuaren kokapena argi eta garbi identifikatu beharko da, posta-helbide osoa (kalea, zenbakia edo km eta udalerrria), udalerrria eta partzela edo poligono-zenbakia, katastro-erreferentzia edo UTM koordenatuak adierazita.

Proiektuak egikaritzeko lizitazio bat egiteko betebeharra duten erakunde publikoen kasuan ez da beharrezkoa izango fabrikatzaileari, markari eta modeloari buruzko daturik aurkeztea lizitazio hori ebatzi ez bada, baina lizitazio horren agiritan ezarri beharko dira laguntza-eskaeran ezarritako baldintzak betetzeko beharrezkoak diren ezaugarri teknikoak.

Eguzki-instalazio termikoen kasuan, sorkuntza-potentzia kalkulatu da 0,7 kW/m²-ko ratioa kontuan hartuz kaptadorearen area totalarekiko. Kasu honetan, eguzki-kaptadoreen fabrikatzailea, marka eta modeloa adierazi behar dira.

B) Gainera, Biomasa tipologiaren jarduketa subentzionagarrietarako, toki-berokuntzako aparatuen Biomasako tipologiarako izan ezik, proiektua (instalazioa legeztatze beharrezkoa bada, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari jarraikiz) edo memoria teknikoa aurkeztu beharko da, non gauzatu beharreko jarduketak eta abiapuntuko egoera behar bezala azalduko diren, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatua, eta, betiere, instalatu behar diren galdaren tipologia, marka eta modeloa adierazita, proiektuak egikaritzeko lizitazio bat egiteko betebeharra duten erakunde publikoen kasuan izan ezik, markari eta modeloari dagokienez aurreko a) atalean ezarritakoa bete beharko dutenak.

Biomasa tipologiaren eskaerretarako, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

1. Berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari dagokionez, erabiliko diren erregai guztien balio lehenetsia % 80 edo handiagoa dela dioen adierazpena, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinean beroa sortzeko adierazitako arabera, produkzio-sistema eta balio lehenetsi hori osatzen duten gainerako baldintzak kontuan hartuz, erregaiaren edo erregaiaren deskribapena eta balio lehenetsiak adierazita.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Erabiliko diren erregaietako batek aurreko betekizun hori betetzen ez badu, eskumeneko teknikari independente batek sinatutako memoria bat aurkeztuko da, non justifikatuko den, proiekturako aurreikusitako baldintzak aintzat hartuz eta VI. eranskin horretan jasotako metodologiarekin bat etorritz, erregai horretarako berotegi-efektuko gasen murrizketa % 80 edo handiagoa dela.

2. Toki-berokuntzako aparatuak edo MW 1etik beherako galdarak barne hartzen badira, ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen (EB) 2015/1185 erregelamenduaren edo Batzordearen (EB) 2015/1189 Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagoak.

3. Toki-berokuntzako aparatuak edo MW 1etik beherako galdarak barne hartzen badira, onuradunaren adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non honako konpromiso hau hartuko duen: bost urtez, dokumentu-erregistro nahikoa atxikitzea, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasea betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa.

C) Geotermiako, Hidrotermiako eta Aerotermiako jarduketa subentzionagarrietarako, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera proiektuaren edo memoria teknikoaren beharrik ez dagoen kasuetan, proiektuaren deskripzio-memoria teknikoan honako hauek erantsiko zaizkie aurreko datuei:

| | Berokuntza | Hozte-sistema | Ur bero sanitarioa |
|--|------------|---------------|--------------------|
| Potentzia (KW) | | | |
| Urteko energia estimatua (kWh/urtea) | | | |
| Urtaroko batez besteko errendimendua | | | |
| Kontsumitutako energia elektrikoa (kWhe/urtea) | | | |
| Funtzionamendu-orduak (orduak/urtea) | | | |

Geotermia tipologiaren instalazioetarako, instalazio geotermikoak direnean, aurreko taulari honako hauek gehituko zaizkie:

| | Sistema (irekia/itxia) | Zundaketa kopurua | Zundaketa-longitudea (m) |
|----------------|------------------------|-------------------|--------------------------|
| Bilketa-eremua | | | |

D) Geotermiako, Hidrotermiako eta Aerotermiako tipologiaren jarduketa subentzionagarrietarako, instalazioa legezatzeko nahitaezkoa den kasuetan, proiektua edo memoria teknikoa ere aurkeztu beharko da (dagokionaren arabera, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari jarraikiz), egin behar diren jarduketak eta abiapuntuko egoera behar bezala deskribatzen dituen, teknikari eskudun batek edo enpresa instalatzaile batek sinatua, dagokionaren arabera.

IIE.A.4 Azken hartzaile motaren egiaztagirak

Jarduketan azken hartzaileak pizgarri-programa bakoitzean ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko da. Gutxienez, IV.A eranskinaren 2. atalean adierazitako informazioa emango da.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

IIE.B Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

477/2021 EDko 16.8 artikulua araberan, laguntzen azken hartzaileek deialdia egiten duen organoaren aurrean justifikatu beharko dute jarduketaren xede izan diren jarduketak egikaritu dituztela, jarraian zerrendatzen diren dokumentuetan jasotakoa egiaztatuta:

IIE.B.1 Ordainketa-aurrerakina eskatzeko dokumentazioa

a) Aurrerakin bat eskatzeko honako oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten jarduketa subentzionatuetarako, Programaren 9.1 Oinarrian adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, bertan adierazitako baldintzei jarraikiz:

IIE.B.2 Egindako jarduketa justifikatzeko dokumentazioa

a) Jarduketak ongi egin direla justifikatzen duen txostena, behin betiko proiektua egin duen eskumeneko teknikari tituludunak —edo, halakorik ez, obra zuzendariak, edo, bidezko bada, egikaritutako instalazioaren azken memoria teknikoak egin duen enpresa instalatzaileak— sinatua, datatua eta emana.

Txosten horretan justifikatu beharko da jarduketak ongi gauzatu direla, oinarrietan eta laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak betez, eta benetan egikaritu dena eta lortutako emaitzak jasoko dira. Txertatutako monitorizazio-sistemaren deskribapena jaso beharko da, I. eranskineko IE.A1.C atalean adierazitakoari jarraikiz.

b) Pizgarri-programa bakoitzerako behar den «ex post» jarduketa ongi egikaritu dela justifikatzen duen dokumentazioa (egikaritutako jarduketa motaren arabera, bidezko bada eta beharrezkoa denean):

1. Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, nahitaezkoa bada.
2. 1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programetarako, ustiapen-baimena edo zerbitzuan jartzeko akta, nahitaezkoa denean, eta Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria, mota guztietako instalazio elektrikoetarako behe-tentsioko Erregelamendu elektroteknikoaren arabera, enpresa instalatzaileak emana eta autonomia-erkidegoko eskumeneko organoak izapidetua, baita sorkuntza-elementuak zerbitzuan jarri izanaren erantzukizunpeko adierazpena, eskumeneko organoaren zigiluarekin.

3. eta 5. pizgarri-programetarako, instalazio elektrikoaren ziurtagiri hori azken instalazioarena izango da, behin biltegitratzea lehendik dagoen instalazioari txertatu ondoren.

6. pizgarri-programarako, instalazio termikoaren ziurtagiria, gaitutako instalatzaileak eta instalazioaren zuzendariak sinatua, azken horren parte-hartzea nahitaezkoa denean, autonomia-erkidegoko eskumeneko organoak erregistratua Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari bat etorritik.

Horrez gain, programa guztietarako, ustiapen-baimena edo zerbitzuan jartzeko akta lortzeko autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari eman zaion diseinu-memoria teknikoak edo proiektuaren kopia erantsiko da (jarduketa motarako dagokionaren arabera) eta/edo Instalazio Elektrikoaren ziurtagiria eta/edo instalazio termikoaren ziurtagiria.

3. 4. pizgarri-programaren kasuan, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txostena, non justifikatuko den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, laguntzaren xede den instalazioak urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Txosten hori ez da beharrezkoa izango 2,63 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia fotovoltaikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan, ezta 3,69 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia eolikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan ere.

Txostena aurkeztea ez da beharrezkoa izango, halaber, baldin eta instalazioa Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean argitara daitezkeen kasu estandarretako batekin lotzeko aukera bada, eta kasu horretan hori justifikatu beharko da.

1., 2. eta 4 pizgarri-programen kasuan, eskatzaileak amianto-instalazioak eraisteko laguntza gehigarriaren eskaera erantsi badu, aplikatzekoa den araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen direla justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

4. 6. pizgarri-programaren kasuan, 1 MW-tik beherako potentziako biomasa tipologiako eskaerarako, azkenean instalatutako ekipoak ez badira eskaeran adierazi ziren berberak, edota horren berri eman ez bazuten, proiektuak egikaritzeko lizitazio bat egiteko betebeharra duen erakunde publiko bat izanik, azkenean instalatutako ekiporako ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko da, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen (EB) 2015/1185 erregelamenduaren edo Batzordearen (EB) 2015/1189 Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagoak.

5. 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen duten jarduketarako, dokumentazio eguneratua, azkenean gauzaturako jarduketarako islatuko edo berretsiko duena (I.E.A.e) atalean eskatutakoa, osagaien jatorriari eta ezaugarriari, proiektuaren inpaktuari eta kalte esanguratsurik ez eragitearen printzipioari dagokionez. 100 kW-ko edo hortik beherako jarduketarako, azkenean gauzaturako jarduketak baldintza hori betetzen duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

6. Adierazpenaren arabera autokontsumo kolektibokoak diren edo familia anitzeko eraikin batean egiten diren proiektuak justifikazioa aurkeztu beharko dute, parte-hartzaile guztiek sinatutako akordioa aurkeztuz, banaketa-irizpideak barne, hau da, jabeekideen erkidegoaren akordioa zein autokontsumo-erregistro administratiboan sartu izanaren justifikazioa, autokontsumo mota hori adierazita.

7. Bero-ponpen kasuan (aeroterminia, hidrotermia, geoterminia), IE.1.E atalean aurreikusitakoa egiaztatzeko, SPF balioa egiaztatuko da ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren bitartez (atal honek zehaztutako txostenaren eranskin gisa jasoko da), edo bestela, balio hori atal honetan zehaztutako txostenean jasoko da.

c) Egindako jarduketei buruzko eskaera eta/edo kontratuen zerrenda (horrelakorik bada), laguntzaren azken hartzaileak sailkatua eta sinatua.

Kontratazio publikoa tartean izanez gero, laguntzaren xede diren jarduketak egiteko laguntzaren azken hartzaileak sinatutako kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia, baita kontratazio prozedura justifikatzen duen dokumentazioa ere: kontratatzailearen profilaren web helbidea, agiriak, lizitazio-iragarkiak eta kontratuen formalizazioa, kontratazio-organoaren akordioak.

d) Kostu subentzionarioaren zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikirako aplikatzekoa den kontratazio publikoko araudian ezarritako zenbatekoak, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 31.3 artikulua aurreikusitako kasuetako baten aurrean ez bagaude, laguntzaren azken hartzaileak egiaztatu beharko du gutxienez hiru hornitzaile eskaintzak eskatu dizkiela, agindu horretan ezarritakoa betez, eta memoria bat ere aurkeztu beharko du, non hornitzailearen hautaketa arrazoizko moduan justifikatuko den, baldin eta eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatu ez bada.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Dokumentazio horretan betiere errespetatu beharko da 477/2021 EDko 13.6 eta 16.2 artikuluetan jarduketan pizgarri-izaerari dagokionez ezarritakoa. Horregatik, egikaritze-konpromiso irmo baten data ezin izango da 477/2021 EDko 16.2 artikuluetan adierazitakoak baino lehenagokoa izan.

e) Fakturen eta dagozkien bankuko ordainketa-egiaztagiriaren zerrenda sailkatua, eta laguntzaren azken hartzaileak sinatua, egindako inbertsio hautagarriari dagozkionak, eta aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzungo dietenak, eta horien kopia.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharra bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak (EEE) zuzenean lor dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

g) Horrelakorik bada, pizgarri-programa honen testuinguruan eskatutako jarduera edo helburu bererako kobratutako beste dirulaguntza edo laguntzak daudela akreditatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren laguntzak izanik ere, estatukoak edo nazioartekoak.

h) Egindako jarduketan argazki-erreportajea, jarduketan ondorengo eraikinaren egoeraren, eta kasuan-kasuan, laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituen, betiere jarduketaren eta I. eranskinen IE.1.C atalean adierazitako energia bisualizatzeko sistemaren publizitate-kartela edo seinalea erakutsita, baita, argazkia ateratzeko modukoa izanik, oinarriak nahitaez jasotzen dituen edozein ekipa edo betebeharrak ere.

i) Laguntzen azken hartzailearen Interneteko gunearen informazioa eta bertan sartzeko esteka, gunerik badu, eta bertan laguntzen azken hartzaile horrek jendeari informazioa emango dio Next Generation Funtsetatik edo Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik ortutako laguntza posibleaz edota, kasuan-kasuan, Europar Batasuneko dagokion tresnatik jasotakoaz, eragiketaren deskribapen labur bat eginez, proportziozko moduan emandako laguntza-mailarekiko, laguntzaren helburu eta emaitzekin, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz betiere.

j) Zerrendatutako transakzio guztietarako (diru-sarrerak eta ordainketak, kasuan-kasuan, laguntzen diru-sarrera, hornitzaileei egindako ordainketak, eta abar, barne) bereizi edo desberdindu bat dagoela justifikatzen duen dokumentazioa. Pertsona fisikoak diren eskatzaileei ez zaie betebeharrak hori aplikatuko.

k) Erantzukizunpeko adierazpena, laguntzen azken hartzaileen justifikazioaren aurrekoa, honako hauek bermatuko dituenak:

1. Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2. Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasagarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta

3. Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean eskuragarri egongo den ereduaren arabera), pertsona fisikoentzat izan ezik.

4. 1., 2. eta 4. pizgarri-programetarako, Errege Dekretu honetan jasotako pizgarri-programekin laguntzaren azken hartzaileari subentzionatutako teknologia bereko (eolikoa edo fotovoltaikoa) instalazio gehiago ez izatea, kokaleku berberari edo kontsumo berberari edo berberei loturik.

l) 1.000.000 eurotik gorako kostu hautagarria duten proiektuetarako nahitaez, justifikazio-kontua aurkeztu ahalko da auditore-txostenarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 74. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztuko den irismenarekin

Nolanahi ere, behin jarduketa gauzatu eta justifikatzeko epea amaitu denean, egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, dagokion laguntza jasotzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

Aurrekoa gorabehera, organo instruktoreak akreditazio- eta justifikazio-jarraibide osagarriak lantzeko aukera izango du, jarduketaren konplexutasunak edo laguntzaren zenbateko handiak hori eskatzen dutenean.

m) Etxebizitzaren edo eraikinaren energia-ziurtagiria, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak onartutako eraikinen efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren 6. artikulua ezartzen duen edukiarekin, teknikari eskudunak sinatutakoa eta behar bezala erregistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeari eta ziurtatze horren kontrolari eta erregistroari buruzko 25/2019 Dekretuaren arabera.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

III. ERANSKINA

GEHIENEO KOSTU SUBENTZIOAGARRIAK, ERREFERENTZIAZKO KOSTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

A1 Laguntzen definizioa

1. Deialdi honetan araututako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta, betiere, dagozkion jarduketa subentzionarioak betetzeko helburua dute.
2. Dagokion emakida-ebazpenean ezarritako zenbatekoko laguntza, jarduketa subentzionarioa denboran eta forman bete izana justifikatu ondoren emango zaio laguntzen azken hartzaileari, Errege Dekretu honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betez.
3. Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, eranskin honetan adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo ataletan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzei aplikatzekoa den Europako araudian ezarritako muga mende egongo da zenbateko hori:

1. Oinarrizko laguntza. Pizgarri-programa bakoitzean ezartzen da sorkuntza-instalazioaren —eta, hala badagokio, biltegiatze-instalazioaren— kostu subentzionarioaren ehuneko baten gisa, edo potentziako zein biltegiatze-kapazitateko unitate bakoitzeko («modulua») balio finko baten gisa.
2. Laguntza gehigarria. Jarduketa subentzionarioaren motaren arabera, oinarrizko laguntza beste laguntza gehigarri batekin osatzeko aukera dago, eranskin honen barruko A3 atalean jasotako tauletan ezarritakoari jarraikiz, baldin eta horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen badira, eranskin honetan ezarritakoaren arabera. Laguntza gehigarriaren kalkulua irizpide bakoitzaren ehunekoa gehituz egingo da, dagozkionaren arabera, edo potentziako zein biltegiatze-kapazitateko balio finko bat ezarrita.
4. Laguntza totalaren zenbatekoa, edozein kasutan ere, jarduketa tipologiari eta dagokion laguntzaren azken onuradun edo hartzaile motari aplikatzekoa den Estatuko laguntzen Europako araudiaren aplikazioaren ondoriozko gehieneko zenbatekoak mugatuko du.
5. Aurreko ataletan aurreikusitakoa aplikatuko zaie EAeko administrazioek gauza ditzaketzen zuzeneko inbertsioei.

A2 Kostu subentzionarioak eta laguntzak

1., 2. eta 3. pizgarri-programetarako, laguntzak kalkulatu dira kostu subentzionarioaren guztizkoaren gaineko ehuneko baten arabera. 4., 5. eta 6. pizgarri-programetarako, laguntzak zenbateko finko unitariotan edo «modulutan» emango dira, kostu subentzionarioaren zati bat estaliko dutenak.

Jarduketa bakoitzari dagozkion kostu subentzionarioak kalkulatzeko metodologia eranskin honetan ezartzen da programa bakoitzerako, eta kostu hautagarritzat I. eranskinean deskribatutako kostu hautagarri aplikagarriak hartuko dira, ongi justifikatuta. II. eranskinean ezarritakoaren arabera justifikatuko dira kostu hautagarri horiek.

Kostu hautagarri unitarioa lortzeko, kostua hautagarria benetan instalatutako sorkuntza-potentziaren artean (Ps) zatituko da, biltegiatze-sistematan izan ezik, non kostu hautagarri unitarioa lortuko den kostu hautagarria biltegiatze-sistemaren kapazitatearen (Kap) artean zatituz, kWh-tan.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoen kasuan, sorkuntza-potentzia lortuko da, laguntza kalkulatzeko, instalazio hori konfiguratzeko duten modulu fotovoltaikoen gehieneko potentziak batuz (puntako potentzia esaten zaio normalean), kondizio estandarretan neurtuak dagokion UNE arauaren arabera.

1., 2. eta 3. pizgarri-programak: *Kostu subentzionagarriaren definizioa eta laguntzaren kalkulua*

Laguntzaren kalkulua autokontsumo berriztagarrian. Sorkuntza-instalazioaren Ksu kostu subentzionagarri unitarioa, eskaera bakoitzerako kostu subentzionagarria zehazteko erabiltzen dena, honela kalkulatu da:

$$Ksu = K_{hu} - K_{uf}$$

Formularen azalpena:

K_{hu}: Sorkuntza-instalazioaren kostu hautagarri unitarioa, €/kW-tan.

K_{uf}: Erreferentziako instalazioaren kostu unitarioa, €/kW-tan.

III. eranskin honetan aurkezten dira, batetik, erreferentziako instalazioaren kostu unitarioak jarduketa bakoitzerako, eta, bestetik, sorkuntza-instalazioaren kostu subentzionagarri unitarioak lor dezakeen gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa. Kostu subentzionagarri unitario horri K_{sgu} «Kostu subentzionagarri gehigarri unitarioa» gehitzeko aukera izango da, aplikatzekoa denean.

Sorkuntza-instalazioaren kostu subentzionagarriaren guztizkoa honako hau izango da:

$$Kostu\ subentzionagarria = (Ksu + Ksgu) \times Ps$$

Ps sorkuntza-instalazioaren potentzia errealak izanik, kW-tan (kWp eguzki-energia fotovoltaikorako).

Sorkuntza-instalazioari eman beharreko laguntza lortuko da, sorkuntza-instalazioaren kostu subentzionagarriaren guztizkoa biderkatuz III. eranskin honetan jarduketa horretarako ezarritako laguntza-ehunekoaz.

Laguntzaren kalkulua biltegitratzea barne hartzen duten sistemetan. Biltegitratze-sistemak txertatzen direnean, sorkuntza-instalazioari emandako laguntzari, bidezko bada, kostu gehigarriak barne, biltegitratze-sistemari dagokiona erantsiko zaio.

K_{ss} biltegitratze-sistemaren kostu subentzionagarria honela kalkulatu da, eskaera bakoitzerako:

$$Kss = Khsu \times Kap$$

Formularen azalpena:

K_{hsu}: Biltegitratze-sistemaren kostu hautagarri unitarioa, €/kWh-tan.

K_{ap}: Biltegitratze-sistemaren kapazitatea, kWh-tan.

Biltegitratze-instalazioaren kostu subentzionagarri unitarioa bat dator hautagarriarekin, baina ezin izango ditu gehieneko kostu subentzionagarri unitarioko balioak gaintitu, III. eranskin honetan ezarritakoaren arabera.

Biltegitratze-instalazioari eman beharreko laguntza lortuko da, biltegitratze-instalazioaren kostu subentzionagarria biderkatuz III. eranskin honetan jarduketa horretarako ezarritako laguntza-ehunekoaz.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

4. pizgarri-programa: Kostu subentzionagarriaren definizioa eta laguntzaren kalkulua

Jarduketari eman beharreko laguntza balio unitario konstantetan ezartzen da (moduluak).

Gutzira jaso beharreko laguntza honela kalkulatu da:

$$\text{Laguntza, gutzira} = \text{Modulua} \times \text{Ps} + \text{Biltegitarte-modulua} \times \text{Kap}$$

Ps sorkuntza-instalazioaren potentzia erreala da, kW-tan (kWp-tan eguzki-energia fotovoltaikorako) eta Kap, berriz, biltegitarte-sistemaren kapazitatea, kWh-tan.

Nolanahi ere, hala badagokio, eskatzaileak azkenean jaso beharreko laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu subentzionagarriaren guttizkoa, ongi justifikatuta.

5. pizgarri-programa: Kostu subentzionagarriaren definizioa eta laguntzaren kalkulua

Jarduketari eman beharreko laguntza balio unitario konstantetan ezartzen da (moduluak).

Gutzira jaso beharreko laguntza honela kalkulatu da:

$$\text{Laguntza, gutzira} = \text{Biltegitarte-modulua} \times \text{Kap}$$

Kap biltegitarte-sistemaren kapazitatea izanik, kWh-tan.

Nolanahi ere, hala badagokio, eskatzaileak azkenean jaso beharreko laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu subentzionagarriaren guttizkoa, ongi justifikatuta.

6. pizgarri-programa: Kostu subentzionagarriaren definizioa eta laguntzaren kalkulua

Jarduketari eman beharreko laguntza balio unitario konstantetan ezartzen da (moduluak), eranskin honetako A3 atalean adierazitakoari jarraikiz. Gutzira jaso beharreko laguntza honela kalkulatu da:

$$\text{Laguntza, gutzira} = \text{Modulua} \times \text{Ps}$$

Ps instalazioaren potentzia erreala izanik, kW-tan.

Aerotermiako, geotermiako eta hidrotzermiako jarduketa estandarretarako, fitxa teknikitik edo fabrikatzailearen zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia izango da instalazioaren Ps potentzia, UNE-EN 14511 arauaren entseguei jarraikiz, hau da, bero-ponpa geotermikoetarako BOW35 berokuntza-potentziaren balioa hartuko da, eta bero-ponpa aerotermikoetarako, berriz, A7W35 berokuntza-potentziaren balioa. Ps potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, hala badagokio, eskatzaileak azkenean jaso beharreko laguntzak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren kostu subentzionagarriaren guttizkoa, ongi justifikatuta.

A3 Laguntzak kalkulatzeko erreferentziako balioak

1., 2 eta 4. pizgarri-programetarako, jaso beharreko gehieneko dirulaguntza bat etorriko da instalazioaren potentziako lehen 5 MW-ekin. Muga hori gainditzen duten potentziak instalatzeko aukera badago, baina inoiz ere ezin izango da laguntzarik jaso 5 MW horien gainetik. Aipatzekoa da, halaber, teknologia bakoitzeko (eolikoa edo fotovoltaikoa) jarduketa bat bakarrik hautatzeko aukera izango dela laguntzaren azken erabilzaile eta kokaleku bakoitzeko edo kontsumo berberari edo berberei loturik.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Hala badagokio, erreferentziazko instalazioaren kostu unitarioen balioak, gehieneko kostu subentzionagarri unitarioak eta programa bakoitzean aplikatu beharreko laguntza-intentsitateak edo moduluak honako hauek dira:

1. eta 2. pizgarri-programak: Zerbitzu-sektorean eta ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan autokontsumo-instalazioak egitea energia-iturri berriztagarrien bitartez, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.

| Jarduketak | Erreferentzi azko instalazioaren kostu unitarioa (Kuf) (€/kW) | Gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa (€/kW) | enpresa handietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentzionagarriaren gainean aplikatzekoa) | Enpresa ertainetarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentzionagarriaren gainean aplikatzekoa) | Enpresa txikietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentzionagarriaren gainean aplikatzekoa) |
|--|---|---|---|--|---|
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp). | 120 | 460 | % 15 | % 25 | % 35 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa Potentzia (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp). | – | 749 | % 15 | % 25 | % 35 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp). | – | 910 | % 15 | % 25 | % 35 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10kWp). | – | 1.188 | % 15 | % 25 | % 45 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW). | 258 | 1.070 | % 20 | % 30 | % 40 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| Jarduketak | Erreferentzi azko instalazioaren kostu unitarioa (Kuf) (€/kW) | Gehieneko kostu subentziona garri unitarioa (€/kW) | enpresa handietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa) | Enpresa ertainetarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa) | Enpresa txikietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa) |
|--|---|--|--|---|--|
| Autokontsum orako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW). | 129 | 3.072 | % 30 | % 40 | % 50 |
| Autokontsum orako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW). | 86 | 4.723 | % 30 | % 40 | % 50 |

Aurreko taulan aurkeztutakoei gehigarri moduan aplikatzekoak diren gehieneko kostu subentziona garri unitarioak honako hauek dira:

| Jarduketak | Gehieneko kostu subentziona garri unitarioa (€/kW) |
|---|--|
| Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan. | P ≤ 100 kWp: 660 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 450 €/kWp 1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp: 210 €/kWp |
| Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea. | 500 €/kWp |

Hala badagokio, biltegitratze-instalazioen gehieneko kostu subentziona garri unitarioa eta programa bakoitzean aplikatu beharreko laguntza-intentsitateak honako hauek dira:

| Jarduketak | Biltegitratze-instalazioaren gehieneko kostu subentziona garri unitarioa (€/kWh) | Enpresa handietarako laguntza (%), kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa | Enpresa ertainetarako laguntza (%), kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa | Enpresa txikietarako laguntza (%), kostu subentziona garriaren gainean aplikatzekoa |
|--|--|---|--|---|
| Autokontsumoko energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea | 200 | % 45 | % 55 | % 65 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| Jarduketak | Biltegitze- instalazioaren gehieneko kostu subentziona- garrri unitarioa (€/kWh) | Enpresa handietarako laguntza (%), kostu subentziona- garrriar en gainean aplikatzekoa | Enpresa ertainetarako laguntza (%), kostu subentziona- garrriar en gainean aplikatzekoa | Enpresa txikietarako laguntza (%), kostu subentziona- garrriar en gainean aplikatzekoa |
|---|--|--|---|--|
| txertatzea (5.000 kWh < P). | | | | |
| Autokontsumora ko energia berriztagarriko instalazio- proiektuari biltegitatzea txertatzea (100 kWh < P ≤ 5.000 kWh). | 350 | % 45 | % 55 | % 65 |
| Autokontsumora ko energia berriztagarriko instalazio- proiektuari biltegitatzea txertatzea (10 kWh < P ≤ 100 kWh). | 500 | % 45 | % 55 | % 65 |
| Autokontsumora ko energia berriztagarriko instalazio- proiektuari biltegitatzea txertatzea (P ≤ 10 kWh). | 700 | % 45 | % 55 | % 65 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

3. pizgarri-programa: Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.

| Jarduketak | Biltegitratze- instalazioaren gehieneko kostu subentziona- garri unitarioa (€/kWh) | Enpresa handietarako laguntza (%), kostu subentziona- garriaren gainean aplikatzekoa | Enpresa ertainetarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentziona- garriaren gainean aplikatzekoa) | Enpresa txikietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentziona- garriaren gainean aplikatzekoa) |
|--|--|--|--|---|
| Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < P). | 200 | % 45 | % 55 | % 65 |
| Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (100 kWh < P ≤ 5.000 kWh). | 350 | % 45 | % 55 | % 65 |
| Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore | 500 | % 45 | % 55 | % 65 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| Jarduketak | Biltegitze- instalazioaren gehieneko kostu subentzionagar ri unitarioa (€/kWh) | Enpresa handietarako laguntza (%), kostu subentzionagarriare n ganean aplikatzekoa | Enpresa ertainetarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentzionagarriare n ganean aplikatzekoa) | Enpresa txikietarako laguntza (%) Laguntza (kostu subentzionagarriare n ganean aplikatzekoa) |
|--|--|---|---|--|
| batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrie n bidezko autokontsum o- instalazioetan biltegitzea txertatzea (10 kWh < P ≤ 100 kWh). | | | | |
| Zerbitzu- sektorean eta beste produktzio- sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrie n bidezko autokontsum o- instalazioetan biltegitzea txertatzea (P ≤ 10 kWh). | 700 | % 45 | % 55 | % 65 |

4. pizgarri-programa: Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitzearekin edo biltegitzerik gabe.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten moduluak honako hauek dira:

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Bizitegi-sektorea:

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kWp)] | Autokontsumo kolektiboko kasurako modulua [Laguntza (€/kWp)] |
|--|----------------------------|--|
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp). | 300 | 355 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp). | 350 | 420 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp). | 450 | 535 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp). | 600 | 710 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW). | 650 | 775 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW). | 1.950 | 2.250 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW). | 2.900 | 3.350 |

Administrazio publikoak eta hirugarren sektorea:

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kWp)] | Autokontsumo kolektiboko kasurako modulua [Laguntza (€/kWp)] |
|--|----------------------------|--|
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp). | 500 | 555 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp). | 650 | 720 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp). | 750 | 835 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp). | 1.000 | 1.110 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW). | 1.150 | 1.275 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW). | 2.700 | 3.000 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW). | 4.100 | 4.550 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Jarduketa gehigarrien gaineko laguntza aplikagarriak, hala badagokio, aurreko tauletan aurkeztutakoei gehitzekoak, honako hauek dira:

| Jarduketak | Modulua [Jarduketa gehigarriaren gaineko laguntza (kasuaren arabera)] |
|--|---|
| Amianto kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan* | P ≤ 100 kWp: 160 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 110 €/kWp 1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp: 50 €/kWp |
| Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea. | 120 €/kWp |

Biltegitratze-sistemak (biltegitratze-modulua) txertatuz gero, honako laguntza hauek aplikatuko dira:

| Jarduketak | Biltegitratze-modulua [Laguntza (€/kWh)] |
|---|--|
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < P). | 140 |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (100 kWh < P ≤ 5.000 kWh). | 245 |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (10 kWh < P ≤ 100 kWh). | 350 |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (P ≤ 10 kWh). | 490 |

5. pizgarri-programa: Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kWh)] |
|---|----------------------------|
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < P). | 140 |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (100 kWh < P ≤ 5.000 kWh). | 245 |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (10 kWh < P ≤ 100 kWh). | 350 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kWh)] |
|--|----------------------------|
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea ($P \leq 10$ kWh). | 490 |

6. pizgarri-programa: Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.

Bizitegi-sektorea:

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kWh)] | Gehieneko laguntza-balioa (€/etxebizitza) |
|--|----------------------------|---|
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako aire-ur instalazio aerotermikoak. | 500 | 3.000 |
| Eguzki-instalazio termikoa ($P > 400$ kW). | 450 | 550 |
| Eguzki-instalazio termikoa (100 kW $< P \leq 400$ kW). | 600 | 780 |
| Eguzki-instalazio termikoa (50 kW $< P \leq 100$ kW). | 750 | 900 |
| Eguzki-instalazio termikoa ($P \leq 50$ kW). | 900 | 1.800 |
| Galdaretarako biomasa. | 250 | 2.500 |
| Toki-berokuntzako aparatuetarako biomasa. | 250 | 3.000 |
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu itxiko instalazio geotermikoak. | 2.250 | 13.500 |
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak. | 1.600 | 9.000 |

Jabetza publikoko eta hirugarren sektoreko etxebizitzak:

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kW)] | Gehieneko laguntza-balioa (€/etxebizitza) |
|--|---------------------------|---|
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako aire-ur instalazio aerotermikoak. | 650 | 3.900 |
| Eguzki-instalazio termikoa ($P > 400$ kW). | 650 | 820 |
| Eguzki-instalazio termikoa (100 kW $< P \leq 400$ kW). | 750 | 950 |
| Eguzki-instalazio termikoa (50 kW $< P \leq 100$ kW). | 850 | 1.050 |
| Eguzki-instalazio termikoa ($P \leq 50$ kW). | 950 | 1.850 |
| Galdaretarako biomasa. | 350 | 3.500 |
| Toki-berokuntzako aparatuetarako biomasa. | 350 | 4.200 |

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

| Jarduketak | Modulua [Laguntza (€/kW)] | Gehieneko laguntza-balioa (€/etxebizitza) |
|--|---------------------------|---|
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu itxiko instalazio geotermikoak. | 2.250 | 13.500 |
| Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak. | 1.700 | 9.550 |

Aurreko taulan aurkeztutakoei gehigarri moduan aplikatzekoak diren gehieneko balio unitarioak honako hauek dira:

| Jarduketak | Modulua [Jarduketa gehigarriaren gaineko laguntza (kasuaren arabera)] |
|--|---|
| Klimatizazioko barne-banaketa berria; zoru bero-emailea txertatzeko zirkuitu hidraulikoak aerotermiako, geotermiako, hidrotermiako edo eguzki-energia termikoko proiektuetarako, betiere sistema horiek energia berriztagarriarekin funtzionatzen badute % 100ean. | 600 €/kW (kontzeptu horrengatik gehieneko muga 3.600 € da) |
| Klimatizazioko barne-banaketa berria; behe-tenperaturako erradiadoreak edo bentilokonbektoreak txertatzeko zirkuitu hidraulikoak, aerotermiako, geotermiako, hidrotermiako edo eguzki-energia termikoko proiektuetarako, betiere sistema horiek energia berriztagarriarekin funtzionatzen badute % 100ean. | 550 €/kW (kontzeptu horrengatik gehieneko muga 1.830 € da). |
| Lehendik dauden instalazioen eraispena. | Eguzki-energia termikorako: 350 €/kW. 385 € (gehieneko muga kontzeptu horrengatik) Biomasarako: 40 €/kW 480 € (gehieneko muga kontzeptu horrengatik) |

A4 Laguntza gehigarriak

1. 1. eta 2. pizgarri-programen instalazio estandar guztiek aukera izango dute kostu subentzionagarriaren gaineko laguntza aplikagarria ehuneko 5 puntutan igotzeko, baldin eta 5.000 biztanlerainoko udalerrietan kokatzen badira, edota 20.000 biztanlerainoko udalerririk ez-hiritarretan, betiere, horietako herrigune bakoitzean, 5.000 biztanle edo gutxiago badituzte. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Hiri Eremuetako Atlasari jarraikiz identifikatuko da udalerririk baten izaera ez-hiritarra. Udalerrietako biztanle kopurua zehaztearren, udal-eroldan 2020ko urtarrilaren 1ean egindako berrikuspenaren ondoriozko biztanle kopuruaren ofizialtasuna aitortzen duen abenduaren 15eko 1147/2020 Errege Dekretua aplikatuko da. Bi iturri ofizialen hurrengo berrikuspenetan atal honetan ezarritako biztanle kopuruak bete ditzaketen udalerririk ere hautagarriak izango dira.

2. 1., 2. eta 3. pizgarri-programetarako ezin izango dira inoiz 651/2014 Erregelamenduko 41. artikuluan ezarritako laguntza-intentsitateko mugak gainditu.

2021eko urriaren 1a, ostirala



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

3. 4. eta 5. pizgarri-programen jarduketetarako, A2 atalean ezarritakoei gehitutako laguntzak ezartzen dira, hurrengo taulan jaso direnak, baldin eta instalazioak 5.000 biztanlerainoko udalerrietan kokatzen badira, edota 20.000 biztanlerainoko udalerrri ez-hiritarretan, betiere, horietako herrigune bakoitzean, 5.000 biztanle edo gutxiago badituzte (erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria), udalerrri horiek aurreko 1. atalean adierazitakoari jarraikiz identifikatu ondoren.

| Erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria-Energia berriztagarrien bidezko autokontsumoa | Erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria (€/kW) |
|---|---|
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp). | 30 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp). | 35 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp). | 40 |
| Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp). | 55 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW). | 65 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW). | 150 |
| Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW). | 225 |
| | Erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria (€/kW) |
| Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea. | 15 |